**ARRASATEKO UDALA ETA “ITURBIDE EGOITZA” ERAKUNDE AUTONOMOA**

***2018ko ABENDUAREN 31ko BALANTZEA ETA 2018ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI DAGOZKION DATA HORRETAKO EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA ETA EGOERA-ORRIAK, KONTU-IKUSKARIEN TXOSTENAREKIN BATERA***

# AURKIBIDEA

2018ko ABENDUAREN 31ko BALANTZEAREN IKUSKAPEN-TXOSTENA ETA 2018ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI DAGOZKION EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA ETA EGOERA-ORRIAK . 1

1. IKUSKATUTAKO AURREKONTUKO EGOERA-ORRIAK ..... 5
   1.1 Arrasateko Udala ..... 5
      1.1.1 Aurrekontuaren likidazioa ..... 5
      1.1.2 Aurrekontu-emaitza ..... 6
      1.1.3 Diruzaintzako gerakina ..... 6
      1.1.4 Balantzea ..... 7
      1.1.5 Ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua ..... 8
   1.2 "Iturbide Egoitza" erakunde autonomoa ..... 9
      1.2.1 Aurrekontuaren likidazioa ..... 9
      1.2.2 Aurrekontu-emaitza ..... 10
      1.2.3 Diruzaintzako gerakina ..... 10
      1.2.4 Balantzea ..... 11
      1.2.5 Ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua ..... 12

2. AURKEZTEKO OINARRIAK ..... 14
   2.1 Sarrera ..... 14
   2.2 Aplikatzekoa den araudia ..... 15

3. AZALPEN-ATALAK: IRUZKINAK ETA GOMENDIOAK ..... 17
   3.1 Aurrekontua eta aurrekontu-aldaketak ..... 17
   3.2 Aurrekontua gauzatzeari buruzko iruzkin orokorrak ..... 19
   3.3 Zuzeneko zergak ..... 24
   3.4 Zeharkako zergak eta tasak eta bestelako sarrerak ..... 25
   3.5 Jasotako transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak ..... 27
   3.6 Ondare-sarrerak eta inbertsio errealak besterentzea ..... 30
   3.7 Langile-gastuak ..... 30
   3.8 Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak ..... 32
   3.9 Finantza-aktiboen aldakuntza ..... 34
   3.10 Finantza-pasiboen eta finantza-gastuen aldakuntza ..... 35
   3.11 Emandako transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak ..... 38
   3.12 Inbertsio errealak ..... 39
   3.13 Diruzaintzako funts likidoak ..... 40

## AURKIBIDEA


3.14 Eskubide onartuen ondoriozko zordunak ........ 42

3.15 Aurrekontuz kanpoko zordunak eta hartzekodunak ........ 44

3.16 Txertatu beharreko kreditu-gerakinak eta konpromiso-kredituak ........ 47

4. ONDARE-KONTABILITATEAN NABARMENDU BEHARREKO BESTE IRUZKIN BATZUK ........ 48

4.1 Finantzaz bestelako ibilgetua ........ 48

4.2 Finantza-ibilgetua ........ 49

**ARRASATEKO UDALA ETA "ITURBIDE EGOITZA" ERAKUNDE AUTONOMOA**

*2018ko ABENDUAREN 31ko BALANTZEAREN IKUSKAPEN-TXOSTENA ETA 2018ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI DAGOZKION DATA HORRETAKO EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA ETA EGOERA-ORRIAK*

# 2018ko ABENDUAREN 31ko BALANTZEAREN IKUSKAPEN-TXOSTENA ETA 2018ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI DAGOZKION DATA HORRETAKO EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA ETA EGOERA-ORRIAK

ARRASATEKO UDALEKO Kontu-hartzailetza Nagusiari:

## I. SARRERA

ARRASATEKO UDALAREN eta berezko nortasun juridikoa duen haren mendeko "ITURBIDE EGOITZA" erakunde autonomoaren aurrekontuko eta ondareko egoera-orriak ikuskatu ditugu (I. atala). Egoera-orri horiek jasotzen dituzte 2018ko abenduaren 31ko balantzea, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua eta erakunde horietako bakoitzaren 2018ko ekitaldiko aurrekontu-likidazioaren ondorioz lortutako egoera-orriak.

Erakunde horietako alkateak/lehendakariak du urteko kontuak emateko ardura, erakundeei aplikatzekoa den finantza-informaziorako esparru arauemailearen arabera (honako hauetan ezartzen da: *21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa, eta 86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako Toki Erakundeen aurrekontu-egitura eta Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onartzen dituena*), eta, bereziki, kontabilitate-printzipio eta - irizpideen arabera. Orobat, berari dagokio urteko kontuak huts materialik gabe prestatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen duen barne-kontrolaren ardura.

## II. LANAREN HELBURUA ETA IRISPIDEA: KONTU-IKUSKARIEN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da erantsitako aurrekontuko eta ondareko egoera-orriek gure iritzian irudi zehatza jasotzen duten adieraztea, sektore publikoaren ikuskapen-printzipioei eta -arauei jarraituz egindako lanean oinarrituta. Arau horiek eskatzen digute kontu-ikuskapena planifikatu eta gauzatzea, egoera-orri horiek oker materialik ez dutenaren arrazoizko (baina, ez erabateko) ziurtasuna izateko.

Kontu-ikuskapen batek berekin dakar ebidentzia egokia eta behar adinakoa lortzea erantsitako egoera-orrietan jasotako zenbatekoen eta informazioaren inguruan. Hautatutako prozedurak kontu-ikuskariaren iritziaren araberakoak dira, aipatutako egoera-orrietan oker materialak izateko arriskuaren balorazioa barne dela. Arriskuaren balorazio horiek egitean, kontu-ikuskariak kontuan hartu behar du kudeatzaileak erantsitako egoera-orriak arrazoiz prestatu eta aurkezteko garrantzitsua den barne-kontrola, kontu-ikuskapeneko prozedura egokiak diseinatzeko, inguruabarren arabera, eta ez erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia adierazteko

helburuarekin. Kontu-ikuskapen batean sartzen da, halaber, kontabilitate-irizpideen egokitzapena eta kudeatzaileak egindako kontabilitate-zenbatespenen arrazoizkotasuna ebaluatzea, baita balantzearen, ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontuaren eta aurrekontu-likidazioaren aurkezpen globala ebaluatzea ere.

Gure ustez, lortu dugun kontu-ikuskapeneko ziurtasuna nahikoa eta egokia da kontu-ikuskapenari buruzko gure aldeko iritzia emateko salbuespen batzuekin.

## III. LANAREN EMAITZAK: SALBUESPENAK DITUEN ALDEKO IRITZIAREN OINARRIA

Erantsitako 2018ko abenduaren 31ko balantzearen *"Diruzaintza"* kontuaren saldoan (1.1.4. atala) diruzaintzako soberakinak ezartzeko finantza-kontuetan kokatutako funts likidoei dagozkien 5.234.000 euro (6.525.000 euro 2017ko abenduaren 31n) barne hartzen dira *"Eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak"* epigrafean. Zenbateko horretatik, alabaina, 5.034.000 euroko guztizko zenbatekoa (6.025.000 euro 2017ko abenduaren 31n) *"Aldi baterako finantza-inbertsioak"* epigrafean erregistratu beharko zatekeen (3.13 atala).

Gainera, gure lanean zehar doikuntza jakin batzuk jarri dira agerian, aplikatutako kontabilitateko printzipio eta irizpideen arabera erantsita doazen ikuskatutako egoera-orrietan barne hartu behar ziratekeenak. Ondoren adierazten dira doikuntza eta birsailkapen horien izaera, eta zer ondorio dituzten egindako 2018ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren emaitzazko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinean eta 2018ko abenduaren 31ko balantzean:

- Eurotan -

| Kontzeptua | Atala | Diruzaintzako gerakina | 2018/12/31 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Aktibo arrunta | Pasiboa | Emaitza | Bestelako ondare garbia |
| Sarrerak- | | | | | | |
| – 2018ko laugarren hiruhilekoari dagokion ur-horniduraren erroldaren ondorioz 2018ko abenduaren 31n sortutako sarrerak | - | - | 658.098 | - | 658.098 | - |
| – 2017ko laugarren hiruhilekoari dagokion ur-horniduraren erroldaren ondorioz 2018ko aurrekontuan erregistratutako sarrerak | - | - | - | - | (660.757) | 660.757 |
| GUZTIRA | | - | 658.098 | - | (2.659) | 660.757 |

## IV. IRITZIA

Gure iritzian, “Lanaren emaitzak: salbuespenak dituen aldeko iritziaren oinarriak” paragrafoan deskribatutako gertakariek dituzten ondorioengatik ez bada, erantsitako aurrekontuko eta ondareko egoera-orriek behar bezala adierazten dute, alderdi esanguratsu guztietan, ARRASATEKO UDALAREN eta haren mendeko “ITURBIDE EGOITZA” erakunde autonomoaren 2018ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza-egoeraren irudi zehatza, baita data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitzena eta aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriena ere, aplikatzekoa den finantza-informazioari buruzko esparru arauemailearekin eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuko printzipio eta irizpideekin bat etorriz.

**Betean Auditoría SLP**

José Ignacio Miguel Salvador

2019ko maiatzaren 29a

**ARRASATEKO UDALA ETA "ITURBIDE EGOITZA" ERAKUNDE AUTONOMOA**

***2018ko ABENDUAREN 31ko BALANTZEA ETA 2018ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI DAGOZKION EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA ETA EGOERA-ORRIAK***

# 1. IKUSKATUTAKO AURREKONTUKO EGOERA-ORRIAK

## 1.1 ARRASATEKO UDALA

### 1.1.1 AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

-Eurotan-

| SARREREN EGOERA-ORRIA – 2018ko EKITALDIA | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kapitulua | Atala | Hasierako aurrekontua | Aldaketa +/- | Behin betiko aurrekontua | Likidatutako eskubideak | Diru-bilketa likidoa | Kobratzeko | Gauzatze-egoera |
| 1- Zuzeneko zergak | 3.3 | 7.453.500,00 | - | 7.453.500,00 | 7.078.841,88 | 6.581.050,29 | 497.791,59 | (374.658,12) |
| 2- Zeharkako zergak | 3.4 | 510.001,00 | 24.492,97 | 534.493,97 | 674.586,01 | 550.944,42 | 123.641,59 | 140.092,04 |
| 3- Tasak eta bestelako sarrerak | 3.4 | 7.397.500,00 | 215.197,97 | 7.612.697,97 | 7.785.106,12 | 7.181.266,90 | 603.838,22 | 172.407,15 |
| 4- Transferentzia arruntak | 3.5 | 15.755.516,00 | 589.989,28 | 16.345.505,28 | 16.671.564,11 | 15.258.388,32 | 1.413.175,79 | 326.058,83 |
| 5- Ondare-sarrerak | 3.6 | 156.650,00 | - | 156.650,00 | 195.150,70 | 188.662,48 | 6.488,22 | 38.500,70 |
| Sarrera arruntak guztira | | 31.273.167,00 | 829.680,22 | 32.102.847,22 | 32.405.247,82 | 29.760.312,41 | 2.644.935,41 | 302.400,60 |
| 6- Inbertsio errealak | 3.6 | 251.000,00 | - | 251.000,00 | 251.895,75 | 247.385,33 | 4.510,42 | 895,75 |
| 7- Kapital-transferentziak | 3.5 | 285.000,00 | 539.824,70 | 824.824,70 | 628.427,10 | 288.922,73 | 339.504,37 | (196.397,60) |
| 8- Finantza-aktiboak | 3.9 | 90.000,00 | 10.880.764,22 | 10.970.764,22 | 158.863,46 | 136.442,42 | 22.421,04 | (10.811.900,76) |
| 9- Finantza-pasiboak | | 347.891,18 | - | 347.891,18 | - | - | - | (347.891,18) |
| Kapital-sarrerak guztira | | 973.891,18 | 11.420.688,92 | 12.394.480,10 | 1.039.186,31 | 672.750,48 | 366.435,83 | (11.355.293,79) |
| SARRERAK GUZTIRA | | 32.247.058,18 | 12.250.269,14 | 44.497.327,32 | 33.444.434,13 | 30.433.062,89 | 3.011.371,24 | (11.052.893,19) |

- Eurotan -

| GASTUEN EGOERA-ORRIA – 2018ko EKITALDIA | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kapitulua | Atala | Hasierako aurrekontua | Aldaketa +/- | Behin betiko aurrekontua | Betebehar onartuak | Ordainketa likidoak | Ordaintzeko | Gauzatze-egoera |
| 1- Langile-gastuak | 3.7 | 11.028.284,42 | 83.663,05 | 11.111.947,47 | 11.031.370,27 | 10.999.738,60 | 31.631,67 | 80.577,20 |
| 2- Ondasun eta zerbitzuen erosketak | 3.8 | 10.663.150,00 | 988.564,86 | 11.651.714,86 | 9.858.121,82 | 8.596.367,26 | 1.261.754,56 | 1.793.593,04 |
| 3- Finantza-gastuak | 3.10 | 15.842,06 | (5.000,00) | 10.842,06 | 8.086,76 | 8.086,76 | - | 2.755,30 |
| 4- Transferentzia arruntak | 3.11 | 4.803.966,28 | 188.244,88 | 4.992.211,16 | 4.522.142,78 | 4.117.943,33 | 404.199,45 | 470.068,38 |
| 5- Kreditu globala eta bestelako gastuak | | 325.000,00 | (324.978,25) | 21,75 | - | - | - | 21,75 |
| Gastu arruntak guztira | | 26.836.242,76 | 930.494,54 | 27.766.737,30 | 25.419.721,63 | 23.722.135,95 | 1.697.585,68 | 2.347.015,67 |
| 6- Inbertsio errealak | 3.12 | 3.930.750,00 | 10.431.170,50 | 14.361.920,50 | 4.290.932,83 | 3.954.352,26 | 336.580,57 | 10.070.987,67 |
| 7- Kapital-transferentziak | 3.11 | 983.608,70 | 202.885,00 | 1.186.493,70 | 1.020.796,97 | 984.202,27 | 36.594,70 | 165.696,73 |
| 8- Finantza-aktiboak | 3.9 | 180.000,00 | 30.719,10 | 210.719,10 | 102.679,44 | 102.679,44 | - | 108.039,66 |
| 9- Finantza-pasiboak | 3.10 | 316.456,72 | 655.000,00 | 971.456,72 | 973.672,80 | 973.672,80 | - | (2.216,08) |
| Kapital-gastuak guztira | | 5.410.815,42 | 11.319.774,60 | 16.730.590,02 | 6.388.082,04 | 6.014.906,77 | 373.175,27 | 10.342.507,98 |
| GASTUAK GUZTIRA | | 32.247.058,18 | 12.250.269,14 | 44.497.327,32 | 31.807.803,67 | 29.737.042,72 | 2.070.760,95 | 12.689.523,65 |

- Eurotan -

| 2018an ITXITAKO AURREKONTUEN ALDAKUNTZA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Kapitulua | Atala | Hasieran kobratzeko / ordaintzeko | Baliogabetzea | Kobrantzak / Ordainketak | Kobratzeko / ordaintzeko |
| Zordunak | 3.14 | 4.977.245,78 | (633.883,56) | 1.752.840,14 | 2.590.522,08 |
| Hartzekodunak | | 2.108.253,70 | (8.375,69) | 2.076.628,01 | 23.250,00 |
| ITXITAKO AURREKONTUAK | | 2.868.992,08 | (625.507,87) | (323.787,87) | 2.567.272,08 |

## 1.1 ARRASATEKO UDALA *(jarraipena)*

### 1.1.2 AURREKONTU-EMAITZA

-Eurotan-

| | | |
|---|---|---|
| **Indarrean dagoen aurrekontuko aurrekontu-eragiketen emaitza:** | | **1.636.630,46** |
| Likidatutako eskubideak | 33.444.434,13 | |
| Betebehar onartuak | 31.807.803,67 | |
| **Aurreko ekitaldietako aurrekontu likidatuetako eragiketen emaitza:** | | **(625.507,87)** |
| Itxitako ekitaldietako betebehar ordaindu gabeen bajak | 8.375,69 | |
| Itxitako ekitaldietako eskubide kobratu gabeen bajak | 633.883,56 | |
| **DOIKUNTZA AURREKO AURREKONTU-EMAITZA** | | **1.011.122,59** |
| **Aurrekontu-emaitzaren doikuntzak:** | | **3.231.202,23** |
| Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako betebeharrak | 3.286.524,36 | |
| Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketako desbideratzeak | (55.322,13) | |
| **AURREKONTU-EMAITZA DOITUA** | | **(*) 4.242.324,82** |

*(*) 900 euroko diferentzia Likidazio Dekretuan onartutako kopuruaren aldean, 4.241.424,82 euro izan baita.*

### 1.1.3 DIRUZAINTZAKO GERAKINA

-Eurotan-

| | | |
|---|---|---|
| **1.- Diruzaintzako funts likidoak** | | **12.169.781,93** |
| **2.- Kobratzeko dauden saldoak:** | | **5.921.849,68** |
| Eskubide onartuen ondoriozko zordunak | 5.601.893,32 | |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak | 319.956,36 | |
| **3.- Ordaintzeko dauden saldoak:** | | **3.380.503,34** |
| Betebehar onartuen ondoriozko hartzekodunak | 2.094.010,95 | |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak | 1.286.492,39 | |
| **DIRUZAINTZAKO GERAKIN GORDINA (1 + 2 – 3)** | | **14.711.128,27** |
| Gauzatzen zailak edo gauzaezinak diren eskubideak | | 2.738.102,17 |
| **DIRUZAINTZAKO GERAKIN LIKIDOA** | | **11.973.026,10** |
| Finantzaketa lotua duten gastuei lotutako diruzaintzako gerakina | | 164.597,91 |
| **GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINTZAKO GERAKINA** | | **11.808.428,19** |

## 1.1 ARRASATEKO UDALA (jarraipena)
## 1.1.4 BALANTZEA

-Eurotan-

| AKTIBOA | 2018/12/31 | 2017/12/31 | PASIBOA | 2018/12/31 | 2017/12/31 |
|---|---|---|---|---|---|
| A) AKTIBO EZ-ARRUNTA | 86.768.407,69 | 85.473.068,85 | A) ONDARE GARBIA | 97.300.486,96 | 94.398.932,58 |
| I) Ibilgetu ukiezina | 703.766,96 | 719.341,20 | I) Ondarea | 30.123.468,71 | 30.123.468,71 |
| *Jabetza industriala eta intelektuala* | *49.385,32* | *54.114,88* | | | |
| *Informatika-aplikazioak* | *46.709,52* | *63.647,97* | | | |
| *Bestelako ibilgetu ukiezina* | *607.672,12* | *601.578,35* | II) Sortutako ondarea | 66.488.078,63 | 64.179.923,32 |
| III) Ibilgetu materiala | 73.070.730,02 | 71.529.415,42 | *Aurreko ekitaldietako emaitzak* | *64.179.923,32* | *62.483.218,77* |
| *Lursailak* | *5.354.370,01* | *5.074.880,45* | *Ekitaldiko emaitza* | *2.308.155,31* | *1.696.704,55* |
| *Eraikuntzak* | *49.717.665,22* | *50.567.041,31* | | | |
| *Azpiegiturak* | *13.423.771,15* | *11.982.801,57* | IV) Jasotako dirulaguntzak, emaitzetara egozteko daudenak | 688.939,62 | 95.540,55 |
| *Ondare historikoko ondasunak* | *54.990,31* | *54.990,31* | | | |
| *Bestelako ibilgetu materiala* | *3.848.545,76* | *3.547.270,55* | B) PASIBO EZ-ARRUNTA | 980.998,46 | 1.669.939,19 |
| *Uneko ibilgetu materiala eta aurrerakinak* | *671.387,57* | *302.431,23* | | | |
| III) Ondasun higiezinetako inbertsioak | 6.348.196,84 | 6.463.558,86 | I) Epe luzerako hornidurak | 570.332,57 | 570.332,57 |
| *Eraikuntzak* | *6.348.196,84* | *6.463.558,86* | | | |
| V) Taldeko erakundeetan, taldeaniztunetan eta elkartuetan egindako epe luzerako finantza-inbertsioak | 6.643.313,87 | 6.760.753,37 | | | |
| *Zuzenbide publikoko erakundeen ondarean egindako finantza-inbertsioak* | *4.327.483,95* | *4.459.494,06* | II) Epe luzerako zorrak | 410.665,89 | 1.099.606,62 |
| *Sozietateen ondarean egindako finantza-inbertsioak* | *2.315.829,92* | *2.301.259,31* | *Kreditu-erakundeekiko zorrak* | *34.239,57* | *1.009.606,62* |
| VI) Epe luzerako bestelako finantza-inbertsioak | 2.400,00 | - | *Beste zenbait zor* | *376.426,32* | *90.000,00* |
| *Beste zenbait finantza-inbertsio* | *2.400,00* | - | | | |
| B) AKTIBO ARRUNTA | 15.353.529,44 | 14.487.611,25 | C) PASIBO ARRUNTA | 3.840.451,71 | 3.891.808,33 |
| I) Salgai dauden aktiboak | - | - | II) Epe laburrerako zorrak | 1.284.960,92 | 1.500.361,34 |
| III) Zordunak eta epe laburrean kobratu beharreko beste zenbait kontu | 1.996.722,52 | 1.281.765,30 | *Kreditu-erakundeekiko zorrak* | *318.150,97* | *316.456,72* |
| *Kudeaketa-eragiketen ondoriozko zordunak* | *1.676.766,16* | *888.577,04* | *Finantza-tresna deribatuak* | - | - |
| *Kobratzeko beste kontu batzuk* | *319.956,36* | *387.225,31* | *Beste zenbait zor* | *966.809,95* | *1.183.904,62* |
| *Administrazio publikoak* | - | *5.962,95* | | | |
| V) Epe laburrerako finantza-inbertsioak | 1.687.024,99 | 1.300.922,70 | IV) Hartzekodunak eta epe laburrean ordaindu beharreko beste zenbait kontu | 2.555.490,79 | 2.391.446,99 |
| *Kredituak eta beste zenbait zor-balore adierazgarri* | *1.187.024,99* | *1.178.201,82* | *Kudeaketa-eragiketen ondoriozko hartzekodunak* | *1.745.430,38* | *1.577.744,61* |
| *Beste zenbait finantza-inbertsio* | *500.000,00* | *122.720,88* | *Ordaintzeko beste kontu batzuk* | *51.240,90* | *101.549,91* |
| | | | *Administrazio publikoak* | *758.819,51* | *712.152,47* |
| VII) Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | 11.669.781,93 | 11.904.923,25 | | | |
| *Beste zenbait aktibo likido baliokide* | *5.234.000,00* | - | | | |
| *Diruzaintza* | *6.435.781,93* | *11.904.923,25* | | | |
| AKTIBOA GUZTIRA | 102.121.937,13 | 99.960.680,10 | PASIBOA GUZTIRA | 102.121.937,13 | 99.960.680,10 |

## 1.1.5 EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

-Eurotan-

| EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZA | 2018/12/31 | 2017/12/31 |
|---|---|---|
| 1. Zerga- eta hirigintza-sarrerak | 14.307.741,70 | 14.458.480,46 |
| *a) Zergak* | *7.443.562,94* | *7.845.752,47* |
| *b) Tasak* | *6.612.283,01* | *6.531.017,77* |
| *d) Hirigintza-sarrerak* | *251.895,75* | *81.710,22* |
| 2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak | 16.720.805,91 | 15.729.458,77 |
| *a) Ekitaldikoak* | *16.708.636,12* | *15.727.281,45* |
| *a.1) Ekitaldiko gastuak finantzatzeko jasotako dirulaguntzak* | *898.681,73* | *1.054.249,58* |
| *a.2) Transferentziak* | *15.809.954,39* | *14.673.031,87* |
| *b) Finantzaz bestelako ibilgeturako dirulaguntzen egozpena* | *12.169,79* | *2.177,32* |
| 3. Salmentak eta zerbitzugintzak | 282.941,05 | 262.195,78 |
| *a) Salmentak* | *380,38* | *1.298,06* |
| *b) Zerbitzugintza* | *282.560,67* | *260.897,72* |
| 6. Kudeaketa arrunteko bestelako sarrerak | 670.289,35 | 395.860,69 |
| A) KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA | 31.981.778,01 | 30.845.995,70 |
| 8. Langile-gastuak | (11.065.466,06) | (10.787.578,28) |
| *a) Soldatak, ordainsariak eta antzekoak* | *(8.631.215,43)* | *(8.393.906,56)* |
| *b) Gizarte-kargak* | *(2.434.250,63)* | *(2.393.671,72)* |
| 9. Emandako dirulaguntzak eta transferentziak | (5.525.221,26) | (5.383.866,16) |
| 10. Hornikuntzak | (24.596,74) | (12.377,79) |
| *a) Salgaien kontsumoa eta bestelako hornikuntzak* | *(24.596,74)* | *(12.377,79)* |
| 11. Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak | (10.014.599,26) | (9.538.434,36) |
| *a) Kanpoko hornidurak eta zerbitzuak* | *(9.994.047,58)* | *(9.517.924,67)* |
| *b) Zergak* | *(20.551,68)* | *(20.509,69)* |
| 12. Ibilgetuaren amortizazioa | (3.110.427,02) | (3.063.224,58) |
| B) KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA | (29.740.310,34) | (28.785.481,17) |
| I. KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA | 2.241.467,67 | 2.060.514,53 |
| 13. Finantzaz bestelako ibilgetuaren eta salmenta-egoeran dauden aktiboen balio-narriaduraren eta besterentzeen emaitzak | 928,74 | 64.051,19 |
| *b) Bajak eta besterentzeak* | - | *40.874,10* |
| *c) Finantzaz bestelako ibilgetuko dirulaguntzak egoztea* | *928,74* | *23.177,09* |
| 14. Bestelako kontu-sail ez-arruntak | 334.791,55 | 399.180,39 |
| *a) Sarrerak* | *334.791,55* | *399.180,39* |
| II. FINANTZAZ BESTELAKO ERAGIKETEN EMAITZA | 2.577.187,96 | 2.523.746,11 |
| 15. Finantza-sarrerak | 57.747,24 | 69.897,27 |
| *b) Zor-balore adierazgarrienak, kredituenak eta beste zenbait finantza-inbertsiorenak* | *57.747,24* | *69.897,27* |
| *b.2) Bestelakoak* | *57.747,24* | *69.897,27* |
| 16. Finantza-gastuak | (8.086,76) | (13.221,01) |
| *b) Bestelakoak* | *(8.086,76)* | *(13.221,01)* |
| 20. Balio-narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak | (318.693,13) | (883.717,82) |
| *a) Taldeko erakundeenak, taldeaniztunenak eta elkartuenak* | *(194.557,18)* | *(159.272,45)* |
| *b) Bestelakoak* | *(124.135,95)* | *(724.445,37)* |
| III. FINANTZA-ERAGIKETEN EMAITZA | (269.032,65) | (827.041,56) |
| IV. EKITALDIKO EMAITZA GARBIA | 2.308.155,31 | 1.696.704,55 |
| + Aurreko ekitaldiko emaitzaren kontuan egindako doikuntzak | - | - |
| AURREKO EKITALDIKO EMAITZA DOITUA | 2.308.155,31 | 1.696.704,55 |

## 1.2 "ITURBIDE EGOITZA" ERAKUNDE AUTONOMOA

### 1.2.1 AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

-Eurotan-

| SARREREN EGOERA-ORRIA – 2018ko EKITALDIA | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kapitulua | Atala | Hasierako aurrekontua | Aldaketa +/- | Behin betiko aurrekontua | Likidatutako eskubideak | Diru-bilketa likidoa | Kobratzeko | Gauzatze-egoera |
| 3- Tasak eta bestelako sarrerak | 3.4 | 1.435.500,00 | 24.000,00 | 1.459.500,00 | 1.555.833,25 | 1.546.885,83 | 8.947,42 | 96.333,25 |
| 4- Transferentzia arruntak | 3.5 | 1.997.099,28 | 5.762,41 | 2.002.861,69 | 1.901.784,90 | 1.633.177,63 | 268.607,27 | (101.076,79) |
| 5- Ondare-sarrerak | | 25,00 | - | 25,00 | - | - | - | (25,00) |
| Sarrera arruntak guztira | | 3.432.624,28 | 29.762,41 | 3.462.386,69 | 3.457.618,15 | 3.180.063,46 | 277.554,69 | (4.768,54) |
| 8- Finantza-aktiboak | | 10.000,00 | - | 10.000,00 | - | - | - | (10.000,00) |
| Kapital-sarrerak guztira | | 10.000,00 | - | 10.000,00 | - | - | - | (10.000,00) |
| SARRERAK GUZTIRA | | 3.442.624,28 | 29.762,41 | 3.472.386,69 | 3.457.618,15 | 3.180.063,46 | 277.554,69 | (14.768,54) |

- Eurotan -

| GASTUEN EGOERA-ORRIA – 2018ko EKITALDIA | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kapitulua | Atala | Hasierako aurrekontua | Aldaketa +/- | Behin betiko aurrekontua | Betebehar onartuak | Ordainketa likidoak | Ordaintzeko | Betearazte-egoera |
| 1- Langile-gastuak | 3.7 | 729.024,28 | 5.762,41 | 734.786,69 | 731.041,71 | 729.540,19 | 1.501,52 | 3.744,98 |
| 2- Ondasun eta zerbitzuen erosketak | 3.8 | 2.703.000,00 | 24.000,00 | 2.727.000,00 | 2.726.083,69 | 2.446.500,40 | 279.583,29 | 916,31 |
| 3- Finantza-gastuak | | 600,00 | - | 600,00 | 492,75 | 492,75 | - | 107,25 |
| Gastu arruntak guztira | | 3.432.624,28 | 29.762,41 | 3.462.386,69 | 3.457.618,15 | 3.176.533,34 | 281.084,81 | 4.768,54 |
| 8- Finantza-aktiboak | | 10.000,00 | - | 10.000,00 | - | - | - | 10.000,00 |
| Kapital-gastuak guztira | | 10.000,00 | - | 10.000,00 | - | - | - | 10.000,00 |
| GASTUAK GUZTIRA | | 3.442.624,28 | 29.762,41 | 3.472.386,69 | 3.457.618,15 | 3.176.533,34 | 281.084,81 | 14.768,54 |

- Eurotan -

| 2018an ITXITAKO AURREKONTUEN ALDAKUNTZA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Kapitulua | Atala | Hasieran kobratzeko / ordaintzeko | Baliogabetzea | Kobrantzak / Ordainketak | Kobratzeko / ordaintzeko |
| Zordunak | | 210.556,38 | - | 210.556,38 | - |
| Hartzekodunak | | 417.551,11 | - | 417.551,11 | - |
| ITXITAKO AURREKONTUAK | | (206.994,73) | - | (206.994,73) | - |

## 1.2 "ITURBIDE EGOITZA" ERAKUNDE AUTONOMOA (jarraipena)

### 1.2.2 AURREKONTU-EMAITZA

-Eurotan-

| | | |
|---|---|---|
| **Indarreko aurrekontuko aurrekontu-eragiketen emaitza:** | | - |
| Likidatutako eskubideak | 3.457.618,15 | |
| Betebehar onartuak | 3.457.618,15 | |
| **Aurreko ekitaldietako aurrekontu likidatuetako eragiketen emaitza:** | | - |
| Itxitako ekitaldietako betebehar ordaindu gabeen bajak | - | |
| Itxitako ekitaldietako eskubide kobratu gabeen bajak | - | |
| **DOIKUNTZA AURREKO AURREKONTU-EMAITZA** | | - |
| **Aurrekontu-emaitzaren doikuntzak:** | | - |
| Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako betebeharrak | - | |
| Ekitaldiari egoiz dakizkiokeen finantzaketako desbideratzeak | - | |
| **AURREKONTU-EMAITZA DOITUA** | | - |

### 1.2.3 DIRUZAINTZAKO GERAKINA

-Eurotan-

| | | |
|---|---|---|
| **1.- Diruzaintzako funts likidoak** | | **216.177,62** |
| **2.- Kobratzeko dauden saldoak:** | | **277.554,69** |
| Eskubide onartuen ondoriozko zordunak | 277.554,69 | |
| **3.- Ordaintzeko dauden saldoak:** | | **493.732,31** |
| Betebehar onartuen ondoriozko hartzekodunak | 281.084,81 | |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak | 212.647,50 | |
| **DIRUZAINTZAKO GERAKIN GORDINA (1 + 2 – 3)** | | - |
| Gauzatzen zailak edo gauzaezinak diren eskubideak | | - |
| **DIRUZAINTZAKO GERAKIN LIKIDOA** | | - |
| Finantzaketa lotua duten gastuei lotutako diruzaintzako gerakina | | - |
| **GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINTZAKO GERAKINA** | | - |

## 1.2 "ITURBIDE EGOITZA" ERAKUNDE AUTONOMOA (jarraipena)
## 1.2.4 BALANTZEA

-Eurotan-

| AKTIBOA | 2018/12/31 | 2017/12/31 | PASIBOA | 2018/12/31 | 2017/12/31 |
|---|---|---|---|---|---|
| **A) AKTIBO EZ-ARRUNTA** | **4.327.483,95** | **4.459.494,06** | **A) ONDARE GARBIA** | **4.327.483,95** | **4.459.494,06** |
| I) Ibilgetu ukiezina | - | - | I) Ondarea | 6.549.889,68 | 6.536.908,86 |
| *Informatika-aplikazioak* | - | - | | | |
| *Bestelako ibilgetu ukiezina* | - | - | II) Sortutako ondarea | (2.222.405,73) | (2.077.414,80) |
| III) Ibilgetu materiala | 4.327.483,95 | 4.459.494,06 | *Aurreko ekitaldietako emaitzak* | *(2.077.414,80)* | *(1.930.347,01)* |
| *Lursailak* | - | - | *Ekitaldiko emaitza* | *(144.990,93)* | *(147.067,79)* |
| *Eraikuntzak* | *4.223.532,57* | *4.338.288,25* | | | |
| *Bestelako ibilgetu materiala* | *103.951,38* | *121.205,81* | **B) PASIBO EZ-ARRUNTA** | **-** | **-** |
| **B) AKTIBO ARRUNTA** | **493.732,31** | **731.813,40** | **C) PASIBO ARRUNTA** | **493.732,31** | **731.813,40** |
| III) Zordunak eta epe laburrean kobratu beharreko beste zenbait kontu | 277.554,69 | 210.556,38 | IV) Hartzekodunak eta epe laburrean ordaindu beharreko beste zenbait kontu | 493.732,31 | 731.813,40 |
| *Kudeaketa-eragiketen ondoriozko zordunak* | *277.554,69* | *210.556,38* | *Kudeaketa-eragiketen ondoriozko hartzekodunak* | *281.084,81* | *417.551,11* |
| | | | *Ordaintzeko beste kontu batzuk* | *180.479,24* | *279.482,17* |
| VII) Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | 216.177,62 | 521.257,02 | *Administrazio publikoak* | *32.168,26* | *34.780,12* |
| *Diruzaintza* | *216.177,62* | *521.257,02* | | | |
| **AKTIBOA GUZTIRA** | **4.821.216,26** | **5.191.307,46** | **PASIBOA GUZTIRA** | **4.821.216,26** | **5.191.307,46** |

# 1.2 "ITURBIDE EGOITZA" ERAKUNDE AUTONOMOA (jarraipena)
## 1.2.5 EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

-Eurotan-

| EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZA | 2018/12/31 | 2017/12/31 |
|---|---|---|
| 2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak | 1.901.784,90 | 1.875.410,46 |
| *a) Ekitaldikoak* | *1.901.784,90* | *1.875.410,46* |
| *a.2) Transferentziak* | *1.901.784,90* | *1.875.410,46* |
| 3. Salmentak eta zerbitzugintzak | 1.502.049,31 | 1.413.651,92 |
| *b) Zerbitzugintza* | *1.502.049,31* | *1.413.651,92* |
| 6. Kudeaketa arrunteko bestelako sarrerak | 27.228,95 | 25.086,90 |
| A) KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA | 3.431.063,16 | 3.314.149,28 |
| 8. Langile-gastuak | (731.625,24) | (764.110,96) |
| *a) Soldatak, ordainsariak eta antzekoak* | *(564.073,57)* | *(593.244,25)* |
| *b) Gizarte-kargak* | *(167.551,67)* | *(170.866,71)* |
| 11. Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak | (2.725.500,16) | (2.581.412,59) |
| *a) Kanpoko hornidurak eta zerbitzuak* | *(2.725.500,16)* | *(2.581.412,59)* |
| 12. Ibilgetuaren amortizazioa | (144.990,93) | (147.067,79) |
| B) KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA | (3.602.116,33) | (3.492.591,34) |
| I. KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA | (171.053,17) | (178.442,06) |
| 14. Bestelako kontu-sail ez-arruntak | 26.554,99 | 31.821,86 |
| *a) Sarrerak* | *26.554,99* | *31.821,86* |
| II. FINANTZAZ BESTELAKO ERAGIKETEN EMAITZA | (144.498,18) | (146.620,20) |
| 15. Finantza-sarrerak | - | 10,16 |
| *b) Zor-balore adierazgarrienak, kredituenak eta beste zenbait finantza-inbertsiorenak* | - | *10,16* |
| *b.2) Bestelakoak* | - | *10,16* |
| 16. Finantza-gastuak | (492,75) | (457,75) |
| *b) Bestelakoak* | *(492,75)* | *(457,75)* |
| III. FINANTZA-ERAGIKETEN EMAITZA | (492,76) | (447,59) |
| IV. EKITALDIKO EMAITZA GARBIA | (144.990,93) | (147.067,79) |
| + Aurreko ekitaldiko emaitzaren kontuan egindako doikuntzak | | |
| AURREKO EKITALDIKO EMAITZA DOITUA | (144.990,93) | (147.067,79) |

**ARRASATEKO UDALA ETA "ITURBIDE EGOITZA" ERAKUNDE AUTONOMOA**

***2018ko EKITALDIARI DAGOZKION IKUSKATUTAKO AURREKONTUKO ETA ONDAREKO EGOERA-ORRI ERANTSIEN AZALPEN-ATALAK, ETA BESTELAKO OHARRAK***

## 2 AURKEZTEKO OINARRIAK

### 2.1 SARRERA

Arrasate Debagoieneko eskualdean dago, Gipuzkoako lurralde historikoan, eta zuzenbideko 22.019 biztanle dauzka 2018ko urtarrilaren 1eko datuen arabera.

Ekitaldiaren amaieran, toki-erakundeek kontu orokorra prestatu behar dute. Horretan, ekonomiaren, finantzaren, ondarearen eta aurrekontuaren arloetako kudeaketa aditzera eman behar dute. Udalerri honi dagokionez, 2018ko ekitaldiari dagokion ARRASATEKO UDALAREN kontu orokorra osatzen dute *Gipuzkoako toki-entitateen aurrekontu egitura eta Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onartzen dituen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretuaren* 47. eta 48. artikuluek Udalari berari eta berezko nortasun juridikoa duen haren mendeko "ITURBIDE EGOITZA" erakunde autonomoari eskatzen dizkieten aurrekontuko eta ondareko kontuek eta egoera-orriek.

Erakunde horri aplikatzekoa den finantza- eta aurrekontu-informazioaren esparru arauemailea aipatutako *foru-arauan* bertan eta honako honetan ezarritakoa da: *86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duena.*

Erantsita doazen aurrekontuko eta ondareko egoera-orriak soilik, aipatutako kontu orokorraren barruan daudenak, dira gure lanaren xede, kontu-ikuskapeneko txostenean deskribatutako irispidearen arabera. Nolanahi ere, irispide horretan ez da sartu Udalaren gastuaren eraginkortasunari buruzko azterketa, ez eta haren kudeaketa-prozedurei buruzkoa ere.

Udalaren ikuskatutako aurrekontuko eta ondareko erantsita doazen egoera-orriak (1. atala) haren kontabilitate-erregistroetatik abiatuta prestatu dira.

Txosten honen datan, Udalbatzak onartu gabe zuen adierazitako kontu orokorra. Hala ere, ez dirudi onarpenaren ondorioz aldaketak izango direnik.

## 2.2 APLIKATZEKOA DEN ARAUDIA

2018ko ekitaldian, Gipuzkoako toki-mailako sektore publikoa araupetzen duen araudiak zuzendu ditu udala eta haren mendeko erakundea:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duena.
- Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen lehen, zortzigarren eta hemeretzigarren xedapen gehigarriak.
- 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituena.
- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duena.
- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.
- 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5ekoa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 3/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Lege Orokorraren osagarria den abenduaren 13ko 5/2001 Lege Organikoa aldatzen duena.
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 1463/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, Toki-erakundeetan aplikatzeari dagokionez, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzeko araudia onartzen duena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazioari eta iraunkortasunari buruzkoa.

- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa.
- 86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko erabakia (*Gipuzkoako toki-erakundeek 2018. urteko aurrekontuak prestatzeko, onartzeko eta gauzatzeko bete beharko duten jarraibidea*).
- 424/2017 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, Tokiko sektore publikoko entitateen barne-kontrolerako araubide juridikoa arautzen duena.

## 3 AZALPEN-ATALAK: IRUZKINAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, eta kudeaketa-arlo adierazgarrienetako bakoitzerako, ikuskatutako egoera-orriak interpretatzeko eta ulertzeko beharrezkotzat eta behar bestekotzat jotzen den informazioa garatuko da. Era berean, gure lanean hautemandako egitateak zabaldu egin dira, emandako iritziaren salbuespeneko paragrafoetan jaso diren egitateak hain zuzen ere (ikus *Kontu-ikuskapeneko txostena*). Azkenik, atal horietan ere, Udalaren antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontroleko sistemekin lotuta antzemandako akatsak barne hartzen dira. Horiek ez dute eragin nabarmenik aipatutako erakundearen jarduera ekonomikoa eta finantzarioa zuzentzen duten kontabilitate-printzipioetan, eta haien kudeaketa hobetzeko eman dira aditzera.

### 3.1 AURREKONTUA ETA AURREKONTU-ALDAKETAK

Udalbatzak, 2017ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, hasierako onarpena eman zien 2018rako aurrekontuari eta aurrekontu hori betearazteko arauari. Arauzko jendaurreko erakustaldia amaitu ondoren, behin betiko onartu zen onarpen-erabakia 2018ko urtarrilaren 12ko GAOn argitaratu zenean. Udalaren hasierako aurrekontua 32.247.058 eurokoa zen eta erakunde horren eta bere mendeko "Iturbide Egoitza" erakundearen artean bateratutakoa 35.649.758 eurokoa.

Aurrekontua ez da programa-mailan garatzen eta, horrenbestez, ezinezkoa da programen helburuak, ekintzak eta adierazleak deskribatzea.

Ekitaldian zehar, Udalak 45 aurrekontu-aldaketa egin ditu: kreditu-txertaketa bat, kreditu gehigarri bat, 11 gaikuntza, 28 transferentzia eta 4 transferentzia eta gaikuntza; eta "Iturbide Egoitzan", berriz, kreditu-gaikuntzaren bidezko 2 aldaketa.

Hona hemen Udalaren aurrekontuan onartutako aldaketen kapitulukako gehikuntza eta murrizketen xehetasuna:

-Eurotan-

| Kapitulua | Kreditu-aldaketen erregimena | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kredituak txertatzea | Kredituak galtzea | Kreditu gehigarria | Transferentziak + gaikuntza | Transferentziak | | Aldaketak guztira |
| | | | | | + | - | |
| Sarreren egoera-orria | | | | | | | |
| 2. Zeharkako zergak | - | 24.492,97 | - | - | | | 24.492,97 |
| 3. Tasak eta bestelako zergak | - | 171.297,97 | - | 43.900,00 | | | 215.197,97 |
| 4. Transferentzia arruntak | - | 576.989,28 | - | 13.000,00 | | | 589.989,28 |
| 7. Kapital-transferentziak | - | 538.484,70 | - | 1.340,00 | | | 539.824,70 |
| 8. Finantza-aktiboak | 6.256.659,82 | 91.225,46 | 4.532.878,94 | - | | | 10.880.764,22 |
| **Sarreretako aldaketak guztira** | **6.256.659,82** | **1.402.490,38** | **4.532.878,94** | **58.240,00** | | | **12.250.269,14** |
| Gastuen egoera-orria | | | | | | | |
| 1. Langile-gastuak | - | 83.663,05 | - | - | - | - | 83.663,05 |
| 2. Ondasun eta zerbitzuen erosketak | 103.646,83 | 599.369,78 | 189.920,00 | 25.000,00 | 318.628,25 | (248.000,00) | 988.564,86 |
| 3. Finantza-gastuak | - | - | - | - | - | (5.000,00) | (5.000,00) |
| 4. Transferentzia arruntak | - | 57.494,88 | - | 50.000,00 | 80.750,00 | - | 188.244,88 |
| 5. Kreditu globala | - | - | 75.000,00 | - | - | (399.978,25) | (324.978,25) |
| 6. Inbertsio errealak | 6.149.186,86 | 538.484,70 | 3.537.958,94 | (16.760,00) | 584.205,00 | (361.905,00) | 10.431.170,50 |
| 7. Kapital-transferentziak | - | 98.985,00 | 75.000,00 | - | 46.400,00 | (17.500,00) | 202.885,00 |
| 8. Finantza-aktiboak | 3.826,13 | 24.492,97 | - | - | 2.400,00 | - | 30.719,10 |
| 9. Finantza-pasiboak | - | - | 655.000,00 | - | - | - | 655.000,00 |
| **Gastuetako aldaketak guztira** | **6.256.659,82** | **1.402.490,38** | **4.532.878,94** | **58.240,00** | **1.032.383,25** | **(1.032.383,25)** | **12.250.269,14** |

Kredituak aldatzeko espediente ugariak aztertu ondoren, honako gorabehera hauek antzeman ditugu:

- 9 kreditu-transferentziatan "VI. Inbertsio errealak" kapituluaren behin betiko aurrekontua murriztu da. Aipatutako 21/2003 Foru Arauaren arabera, horrelakorik gertatuz gero Udalbatzak onartu beharko lituzke.

- Aurrekontuak transferentzien bidez aldatzeko espedienteetan 6 kontu-sailetan soberan zegoen kreditua erabili da finantzaketa-iturri gisa 126.000 euroko baterako zenbatekoaz. Kontu-sail horiek aldez aurretik handitu ziren, bai beste transferentzia baten bitartez, bai kreditu gehigarri baten bidez. Kreditu-murrizketa hori aipatutako Foru Arauaren 29.5 artikuluan ezartzen diren mugen kontra doa, aukera hori aldez aurretik handitu diren kontu-sailetara mugatzen du eta.

Aurrekontua gauzatzeko arauak ez ditu berariaz jasotzen gastuen kapituluetako kontu-sailen osotasunerako aplikatzekoak diren lotura-maila guztiak: adierazitako mailetatik kanpo geratzen dira 2. eta 4. kapituluetako kontu-sailetako batzuk eta ez da berariazko aipamenik egiten 6., 7. eta 8. kapituluetarako.

Aurrez adierazitakoa gorabehera, Udalaren iritziz kontu-saila da horientzako guztientzako lotura-maila.

Aurreko paragrafoen arabera, honako hau ***gomendatzen dugu:***

⇒ ***Kredituak aldatzeko espedienteak egiteko prozeduren eta ezarritako loturen azterketa egitea, tramitatu beharreko espediente kopurua murrizten ahalegintzeko.***

⇒ ***Udalaren jardueraren eraginkortasunari eta ekonomiari loturik egindako jarduerak baloratzea ahalbidetuko duen teknikaren bat erabiliz egitea aurrekontuak. Horretarako, helburuak eta adierazleak ezarri beharko dira programa funtzional bakoitzerako.***

## 3.2 AURREKONTUA BETEARAZTEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK

Udalaren eta "Iturbide Egoitzaren" 2018ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioei 2019ko martxoaren 28ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabaki banaren bidez eman zaie hasierako onarpena. Geroztik, Batzordeak akatsen zuzenketaren ondoriozko aldaketa bat onartu zuen Udalaren likidazioan 2019ko maiatzaren 2an.

Udalaren "Indarreko aurrekontuko aurrekontu-eragiketen emaitza" aurrekontuan sartutako zenbatekoen (aurreko taulan adierazitako aldaketak aintzat hartu ondoren) eta azkenik onartutako eskubide eta betebeharren arteko diferentzien batura gisa lortzen da, honako xehetasun honen arabera:

-Eurotan-

| | | |
|---|---|---|
| **Sarreren egoera-orria:** | | (263.354,43) |
| Sarrera arrunt handiagoak | 302.400,60 | |
| Kapital-sarrera txikiagoak | (565.755,03) | |
| **Gastuen egoera-orria:** | | 12.689.523,65 |
| Gastu arrunt txikiagoak | 2.347.015,67 | |
| Kapital-gastu txikiagoak | 10.342.507,98 | |
| **2018an aurrekontu-aldaketak finantzatu dituen 17/12/31ko diruzaintzako gerakina** | | 10.789.538,76 |
| **Indarrean dagoen aurrekontuko eragiketen emaitza:** | | 1.636.630,46 |

Udalari dagokionez, gastuen aurrekontuaren gauzatze-maila % 71,5ekoa da. Ehuneko hori, batik bat, gastu arrunteko kapituluetan eta "Finantza-pasiboak" kapituluan lortu den gauzatze-maila handiari esker lortu da; izan ere, kapituluok batera kalkulatuta, gauzatze-maila % 91,8koa da.

Bestalde, "Inbertsio errealak" kapituluaren betearazte-maila % 29,9koa izan da. Ehuneko horrek, era berean, aurreko ekitaldietatik txertatutako kredituen multzoan (% 40,5) eta 2018ko ekitaldiko ordainketa-kredituetan (% 20,8) onartutako betebeharren eragina hartzen du barnean. Betearazte-maila txiki hori da 2019ko ekitaldiko aurrekontuari kapitulu horietako 9.344.624 euroko kreditu-gerakinak txertatzeko arrazoi nagusia, txertatu beharreko kreditu-gerakin guztien % 97,6, hain zuzen ere.

Kreditu horiek txertatzea, funtsean, 2018ko diruzaintzako gerakinaren kargura finantzatuko da, baina 235.623 euroko dirulaguntzak ere erabiliko dira.

2018ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren dekretuan islatutako "Diruzaintzako gerakina" magnitudearen epigrafekako banakatzea (1.1.3 atala) ez dator bat ekitaldi horretako kontabilitate-itxieraren ondoriozkoarekin, hark ez baitu jasotzen funts likidoen murrizketa eta aurrekontuz kanpoko zordunen gehikuntza, 500.000 euroko zenbatekoaz.

Diruzaintzako gerakin likidoa, bestalde, "Lotutako finantzaketa duten gastuetarako diruzaintzako gerakina" kontzeptuaren arabera doitu behar da ekitaldiaren itxieran. Gerakin hori, indarrean dagoen aurrekontu-araudiak xedatutakoaren arabera, ekitaldi horren itxieran metatutako gastu-proiektuetako finantzaketa-desbideratze positiboei buruzko azterketaren emaitza gisa lortzen da, lotutako sarrerei dagokienez.

Udalaren arabera, aipatutako azterketatik ondorioztatzen denez, 2018ko abenduaren 31n, finantzaketa-desbideratze positiboak 164.598 eurokoak ziren.

2018ko ekitaldiaren aurreko ekitaldietan, Udalak sarrera gisa erregistratu du 2018an gauzatu ez diren hainbat proiekturen finantzaketa finalistarako jasotako zenbatekoa, aurreko paragrafoan adierazitako guztizko zenbatekoaz. Hona hemen horien xehetasuna:

| Proiektua | 2018ko desbideratzea |
|---|---|
| Kulturola proiektuaren kreditu-erreserbak | 124.293,34 |
| Akei zerbitzua (Debagoieneko eta Debabarreneko mankomunitateen % 80ko finantzaketa) | 5.700,00 |
| Gabonetako argiteriaren instalazioaren alokairua | 315,00 |
| Construcciones Amenabar enpresaren egikaritze subsidiarioak – Takolo - Goiru tartea | 6.128,50 |
| Uarkapeko kontrol-telefonogunearen konponketa | 18.963,63 |
| Termiten aurkako Plana | 9.197,44 |
| | 164.597,91 |

Era berean, ekitaldiko aurrekontu-emaitza doitu egin beharko da gastu orokorretarako Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako betebeharren ondorioz, baita ekitaldiari egotzi beharreko finantzaketako desbideratzeen ondorioz ere. Udalak, 3.286.524 euro gehituta, kontzeptu horietako lehenari dagokion aurrekontu-emaitza doitu du.

Zenbateko horrek kredituak aldatu aurretik beste finantzaketa-iturri batzuk zituztelako diruzaintzako gerakinarekin finantzatu ez diren beste betebehar batzuk hartzen ditu barnean, 216.440 euroko zenbatekoaz. Beraz, aipatutako doikuntzak 3.070.084 eurokoa izan beharko zukeen.

Udalak proposatutako adierazi diren emaitzaren gaineko doikuntzetako bigarrenari dagokionez, 55.322 euroko desbideratze positiboa dakar.

## Aurrekontu-egonkortasuna

2012ko maiatzaren 1ean indarrean jarri zen 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa. Legean honako hiru helburu hauek ezartzen dira: Administrazio Publiko guztien finantza-iraunkortasuna bermatzea; Espainiako ekonomiaren egonkortasunean konfiantza indartzea; eta aurrekontu-egonkortasunaren arloan Europar Batasunarekin konpromisoa indartzea.

Legearen printzipio orokorren barruan, aurreko legeriaren lau printzipioei eusten zaie —aurrekontu-egonkortasuna, urteaniztasuna, gardentasuna, eta eraginkortasuna eta eragimena baliabide publikoak esleitzean—, eta hiru printzipio berri sartzen dira: finantza-iraunkortasun, erantzukizun eta leialtasun instituzionala.

Tokiko erakundeetan aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak eraginkortasunez aplikatzeak honako baldintza hauek betetzea dakar:

Aurrekontu-egonkortasuna: erakunde horiek aurrekontu-orekari edo -superabitari eutsi beharko diote haien aurrekontuak prestatu, onartu eta betearaztean (finantzatzeko ahalmenaren edo premiaren arabera neurtzen da, Kontu Nazionalen eta Eskualdekoen Europako Sisteman jasotako definizioari jarraituz).

Gastuaren araua: gastu konputagarriaren aldakuntzak ezin izango du gainditu epe ertainerako Espainiako ekonomiaren barne-produktu gordinaren (BPG) erreferentziako hazkunde-tasa. 2018ko ekitaldirako, tasa hori % 2,4koa izan da.

Zor-muga: 2018ko ekitaldiaren itxierako zor publikoaren helburua eta, zehazki, toki-erakundeen osotasunerako, % 2,7an ezarri da.

Azkenik, aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastuaren arauaren helburuak betetzeari buruzko hainbat txosten egiteko beharra jasotzen da. Helburuak bete izana egiaztatu beharko da 2018. urteko aurrekontua onartu, aldatu eta likidatzean.

Helburu horietako edozein ez betetzeak, beraz, urtebeteko epean sortutako desbideratzea zuzentzea ahalbidetuko duen ekonomia- eta finantza-plana aurkeztu beharra eskatuko du.

Bestalde, 2013ko ekitaldian indarrean jarri zen 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.

2017ko martxoaren 7an, GAOn, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2016ko apirilaren 4ko epaia argitaratu zen. Horren bidez, aipatutako 1/2013 Foru Arauaren zenbait artikulu eta xedapen gehigarri bakarra baliogabetu ziren.

Horien artean dago kredituak txertatzean gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina erabiltzea ahalbidetzen duena; edota kreditu gehigarrien finantzaketan aribideko ekitaldirako finkatutako zorraren helburua betetzen duten erakundeei zuzendutakoa.

Horiek horrela, aurrekontu-egonkortasunaren helburua, zor publikoaren helburua edo gastuaren araua betetzen ez bada, urte horretan eta hurrengoan arestian adierazitako

helburuak edo gastuaren araua betetzea ahalbidetuko duen ekonomia- eta finantza-plana formulatu beharko da.

Bestalde, jarraian adierazten den erabakian ezartzen da 2017 eta 2018 artean konputa daitekeen gastuak ez dezala % 2,4 gainditu: Erabakia, 2017ko azaroaren 7koa, Foru Kontseiluarena, 2018. urteko aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzean Gipuzkoako toki-erakundeek bete beharko dituzten arauak jasotzen dituen jarraibidea onartzen duena.

Era berean, jarraibide horrek ezartzen du helburu hau bete behar dela: 2018ko abenduaren 31n, 2018an likidatutako sarrera arrunten gehienez % 75eko zor bizia izatea.

Aurrekontu-egonkortasunari dagokionez, 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan jasotako erakunde guztiek orekaren helburua bete beharko dute 2018ko ekitaldian.

Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2018ko ekitaldiko hasierako aurrekontuak, aldatutakoak eta aurrekontuaren likidazioa bateratzetik ondorioztatzen den finantzatzeko ahalmena/premia honako hau da:

-Eurotan-

| Kontzeptua | Hasierako aurrekontua | Behin betiko aurrekontua | Eskubideak / Betebeharrak |
|---|---|---|---|
| Sarreren egoera-orriko 1.etik 7.era bitarteko kapituluak | 35.221.867,00 | 36.615.371,92 | 36.743.188,82 |
| Gastuen egoera-orriko 1.etik 7.era bitarteko kapituluak | 35.163.301,46 | 49.449.089,09 | 34.189.069,58 |
| **Finantzatzeko ahalmena (premia)** | 58.565,54 | (12.833.717,17) | 2.554.119,24 |
| 1.etik 7.era bitarteko kapituluetan gastu handiagoak finantzatzeko erabilitako diruzaintzako gerakina eta horrek onartu eta finantzatutako betebeharrak | - | 10.789.538,76 | 3.286.524,36 |
| **Diruzaintzako geraldna erabili ondoren finantzatzeko ahalmena (premia)** | 58.565,54 | (2.044.178,41) | 5.840.643,60 |

Aurrekontuaren likidazioak finantzatzeko ahalmena erakusten du.

Halaber, Udala 2018rako ezarritako zorpetze-mugaren azpitik dago.

Alabaina, ez da betetzen gastuaren araua, diruzaintzako gerakina erabili baita gastuak finantzatzeko.

## 3.3. ZUZENEKO ZERGAK

Hona hemen Udalaren sarreren egoera-orriko kapitulu horri dagozkion eskubideen banakatzea:

-Eurotan-

| Zerga | Likidatutako eskubideak | Diru-bilketa likidoa | Kobratzeko |
|---|---|---|---|
| Ondasun higiezinen gaineko zerga (OHZ) | 4.037.660,71 | 3.851.517,03 | 186.143,68 |
| Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga | 1.578.279,39 | 1.525.685,04 | 52.594,35 |
| Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gainekoa | 376.496,12 | 286.044,03 | 90.452,09 |
| Ekonomia-jardueren gaineko zerga | 1.086.405,66 | 917.804,19 | 168.601,47 |
| Guztira | 7.078.841,88 | 6.581.050,29 | 497.791,59 |

Gipuzkoako Foru Aldundiak "Ondasun higiezinen gaineko zerga" (OHZ) eta "Ekonomia-jardueren gaineko zerga" (EJZ) kontzeptuen ondorioz lortu beharreko sarrerak jakinarazten dizkio Udalari dagokion errolda edo likidazio osagarriak aurkeztuta. Udalak erroldari dagokion zenbatekoa edo aipatutako likidazioen guztizkoa dagokion ekitaldiko sarrera gisa erregistratzen du, ekitaldi horren kontabilitatea itxi ez bada.

Gainera, 2018ko ekitaldiari dagokion EJZren probintziako eta estatuko kuotaren likidazioa, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindakoa, 108.956 euroko zenbatekoaz erregistratu da.

## 3.4 ZEHARKAKO ZERGAK ETA TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Udalaren sarreren egoera-orriaren kapitulu honetan kontabilizatutako kontzeptu adierazgarrienen xehetasuna honako hau da:

- Eurotan -

| ZEHARKAKO ZERGAK | | | |
|---|---|---|---|
| Zerga | Likidatutako oskubideak | Diru-bilketa likidoa | Kobratzeko |
| Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga | 674.586,01 | 550.944,42 | 123.641,59 |
| Guztira | 674.586,01 | 550.944,42 | 123.641,59 |

- Eurotan -

| TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK | | | |
|---|---|---|---|
| Kontzeptua | Likidatutako oskubideak | Diru-bilketa likidoa | Kobratzeko |
| Ur-hornidura | 2.719.293,33 | 2.602.495,15 | 116.798,18 |
| Zabor-bilketa | 1.729.317,81 | 1.696.438,09 | 32.879,72 |
| Udalaren kirol-instalazioak | 691.940,73 | 688.547,63 | 3.393,10 |
| Isunak | 362.809,44 | 251.768,34 | 111.041,10 |
| Euskaltegiaren prezio publikoa | 63.643,98 | 46.914,90 | 16.729,08 |
| Hirigintzako zigorrak | 103.645,90 | 34.901,89 | 68.744,01 |
| Hornidura-enpresak; bide publikoaren aprobetxamendua | 516.324,40 | 411.288,80 | 105.035,60 |
| Mahaiak eta mahaitxoak | 37.525,20 | 36.375,40 | 1.149,80 |
| Kirol-ikastaroak | 182.890,87 | 181.754,87 | 1.136,00 |
| Premiamendu-errekargua | 87.060,42 | 87.060,42 | - |
| Dokumentuak egitea | 47.415,95 | 43.663,35 | 3.752,60 |
| Igeriketa-ikastaroak | 48.436,61 | 48.436,61 | - |
| Feriak eta azokak | 78.739,58 | 73.823,54 | 4.916,04 |
| Bide publikoaren okupazioa - Obra-hondakinak eta materialak | 39.547,65 | 37.227,63 | 2.320,02 |
| Kultura-jardueretarako ekarpen partikularrak | 128.962,86 | 112.140,16 | 16.822,70 |
| Mankomunitatearen 2011ko soberakinen itzulketa | 217.480,09 | 217.480,09 | - |
| Udal-hilerria | 128.305,30 | 122.530,80 | 5.774,50 |
| Iblak eta espazio-erreserbak | 50.671,06 | 48.645,32 | 2.025,74 |
| Garraio publikoko zerbitzuaren fakturazioak | 58.965,56 | 58.965,56 | - |
| Ikuskapenaren berandutze-interesak | (33.240,47) | (39.936,16) | 6.695,69 |
| Hirigintzako lizentziak | 81.612,68 | 69.519,80 | 12.092,88 |
| Ibilgailuak jaso eta erretiratzea | 21.971,00 | 7.045,00 | 14.926,00 |
| Tutoretzapeko etxebizitzetarako ekarpen partikularrak | 55.101,52 | 54.499,15 | 602,37 |
| Etxeko laguntzarako ekarpen partikularrak | 36.747,37 | 32.187,22 | 4.560,15 |

- Eurotan -

| TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK | | | |
|---|---|---|---|
| Kontzeptua | Likidatutako eskubideak | Diru-bilketa likidoa | Kobratzeko |
| Itxitako ekitaldietako itzulketak | 25.624,35 | 6.914,41 | 18.609,94 |
| Bestelako sarrerak | 304.411,93 | 250.578,93 | 53.833,00 |
| Guztira | 7.785.105,12 | 7.181.266,90 | 603.838,22 |

"Zeharkako zergak" eta "Tasak eta bestelako sarrerak" kapituluetan azaldutako sarrerak, batez ere, Udalak berak edo mendeko erakundeak kudeatzen ditu.

"Ur-hornidura" epigrafean, 2017ko ekitaldiko 4. hiruhilekoari eta 2018ko lehen hiru hiruhilekoei dagozkien gastuak laburbilduta ageri dira.

2009ko urtarrilaren 1etik aurrera, *Uraren Kanonaren Araubide Ekonomiko-finantzarioaren Araudia onartzen duen azaroaren 4ko 181/2008 Dekretua* indarrean jarri ondoren, tokiko erakundeak behartuta daude ur-horniduraren kanona Uraren Euskal Agentziaren kontura ordainaraztera, eta sei hilez behin likidatu behar dute erakunde horrekin. 2018an likidatutako kanonaren zenbatekoa aurrekontuz kanpoko hartzekodunen kontu batean erregistratzen da, eta hortik aldian behin egiten zaizkio ordainketak erakunde horri.

"Zabor-bilketarako" tasa, zerga-ordenantzan ezarritakoaren arabera etxekoak ez diren erabiltzaileentzat, tarteka likidatzen da erabiltzaileak duen langile kopuruaren arabera. Alabaina, datu hori ez da aldian behin eguneratzen, hirugarrenak berariaz eskatzen duenean izan ezik.

"Hornidura-enpresak; bide publikoaren aprobetxamendua" kontzeptuak hainbat enpresak tokiko jabari publikoaren erabilera pribatuagatik ordaintzen duten tasaren sarrerak jasotzen ditu, eta gasa eta energia banatzearekin eta merkaturatzearekin erlazionatuta daude batik bat.

Udalak ez ditu sarrerak ondare-kontabilitatean periodifikatzen sortzapenaren printzipioaren arabera.

Udalaren mendeko erakundean, sarreren egoera-orriko "Tasak eta bestelako sarrerak" kapituluan likidatutako eskubideen kontzeptukako xehetasuna honako hau da:

- Eurotan -

| Kontzeptua | Iturbide |
|---|---|
| Egoiliarren kuotak | 1.502.024,13 |
| Egoiliarrentzako sendagaiak | 26.554,99 |
| Tutoretzapeko etxebizitzak | 27.228,95 |
| Beste hainbat sarrera | 25,18 |
| **Guztira** | **1.555.833,25** |

"Egoiliarren kuotak" kontzeptuek egoitzaren erabiltzaileen hileroko ekarpena hartzen dute barnean.

Aurreko paragrafo batean adierazitakoari jarraikiz, ***honako hau gomendatzen dugu***:

⇒ ***Zabor-tasa aplikatzeko modua aldatzea eta langile kopuruaren araberako tarteak ez erabiltzea, edo, bestela, erroldan datu hori etengabe eguneratzeko sistema bat ezartzea.***

## 3.5 JASOTAKO TRANSFERENTZIA ARRUNTAK ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIAK

Hona hemen Udalaren sarreren egoera-orriari dagozkion kapitulu horien osaera:

- Eurotan -

| TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | | | |
|---|---|---|---|
| Erakunde emailea | Likidatutako eskubideak | Diru-bilketa likidoa | Kobratzeko |
| Itundu gabeko zergak | 33.616,16 | 28.970,30 | 4.644,86 |
| Eusko Jaurlaritza | 441.475,99 | 308.549,99 | 132.926,00 |
| HABE | 369.394,66 | 276.921,61 | 92.473,05 |
| INE | 306,70 | 306,70 | - |
| LANBIDE | 81.844,40 | - | 81.844,40 |
| HAEE | 10.192,12 | - | 10.192,12 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia - UFFF | 15.355.627,26 | 14.497.165,51 | 858.461,75 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia - beste dirulaguntzak | 214.700,66 | 124.742,83 | 89.957,83 |
| Mankomunitatea | 24.917,83 | 17.723,83 | 7.194,00 |
| Iturbide | 131.639,97 | - | 131.639,97 |
| Beste enpresa eta erakunde batzuk | 7.849,36 | 4.007,55 | 3.841,81 |
| **Guztira** | **16.671.564,11** | **15.258.388,32** | **1.413.175,79** |

- Eurotan -

| KAPITAL-TRANSFERENTZIAK | | | |
|---|---|---|---|
| Erakunde emailea | Likidatutako eskubideak | Diru-bilketa likidoa | Kobratzeko |
| Eusko Jaurlaritza | 433.250,20 | 165.996,53 | 267.253,67 |
| Energiaren Euskal Erakundea (EEE) | 6.211,60 | - | 6.211,60 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 6.710,00 | 5.310,00 | 1.400,00 |
| Beste enpresa batzuk | 130.280,22 | 75.000,00 | 55.280,22 |
| Familiak | 42.616,20 | 42.616,20 | - |
| Ekarpen partikularrak | 9.358,88 | - | 9.358,88 |
| **Guztira** | **628.427,10** | **288.922,73** | **339.504,37** |

2018ko ekitaldian "Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren" kontzeptupean likidatutako eskubideek Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru hilez behin ordaindutako behin betiko likidazioaren konturako entregak eta 2018ko ekitaldiko azken likidazioa (858.462 euro) jasotzen dituzte.

"Eusko Jaurlaritza" epigrafean erregistratutako dirulaguntza arrunten barruan, kontzeptu adierazgarrienen artean, "Pobreziaren aurkako planetarako" eta "Gizarte-zerbitzuen maparako" jasotakoak sartzen dira.

Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzak Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntza gisa erregistratu ditu Udalak, 88.976 euroko zenbatekoaz.

Udalaren mendeko erakundean, dagozkion sarreren egoera-orriko "Transferentzia arruntak" kapituluan likidatutako eskubideen laburpena honako hau da erakunde emailearen arabera:

- Eurotan -

| TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | |
|---|---|
| Kontzeptua | Iturbide |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 2.033.424,87 |
| Arrasateko Udala | (131.639,97) |
| Guztira | 1.901.784,90 |

"Iturbide Egoitzan" erregistratutako sarrera arruntak, Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotakoak, erakunde horrek adinekoen egoitzetarako, eguneko zentroetarako eta etxeko laguntzarako ezarritako finantzaketa-sistemaren emaitzazko sarrerei dagozkie.

Transferentzia arrunten "Arrasateko Udala" epigrafean "Iturbide" egoitzaren defiziterako ekarpena erregistratzen da, Udalak bere kargura ordaintzen dituen fakturen ondoriozko gastuen zenbatekoaren konpentsazioaren bidez. Gastu horien artean daude, besteak beste, elektrizitatea, igogailuak mantentzeko lanak, telefonoak eta langileen nominak.

Bestalde, egoitzak 180.479 euroko aurrekontu-superabita sortu du (bertan ez dira egozten eta ez daude sartuta egitura-kargak, zeharkako kostuak eta amortizazioak). Zenbateko hori Udalean erregistratuta dago, alde batetik, 131.640 euro "IV. Transferentzia arruntak" kapituluko sarrera gisa, aurreko taulako "Iturbide" kontzeptuaren barruan, eta, bestetik, 48.839 euro aurrekontuz kanpoko zordunen kontuan, "itzuli beharreko aurrerakinen ondoriozko zordunen" barruan (3.15. atala).

## 3.6 ONDARE-SARRERAK ETA INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA

Udalaren sarreren egoera-orriaren "Ondare-sarrerak" kapituluari dagozkion eskubideen banakatzea honako hau da:

- Eurotan -

| Kontzeptua | Likidatutako eskubideak | Diru-bilketa likidoa | Kobratzeko |
|---|---|---|---|
| Gordailuen interesak | 3.927,29 | 3.927,29 | - |
| Olio-bilketako hitzarmenaren patentea | 4.729,56 | 3.547,17 | 1.182,39 |
| Lokalen errentak | 175.888,66 | 171.706,04 | 4.182,62 |
| Biteri aparkalekuaren emakidak | 8.169,50 | 8.169,50 | - |
| Makinen eta udako tabernaren kanona | 2.435,69 | 1.312,48 | 1.123,21 |
| **Guztira** | **195.150,70** | **188.662,48** | **6.488,22** |

Bestalde, Udalaren "Inbertsio errealak besterentzea" kapituluko eskubideen osaera honako hau da:

- Eurotan -

| Kontzeptua | Likidatutako eskubideak | Diru-bilketa likidoa | Kobratzeko |
|---|---|---|---|
| Hirigintza-kargak | 251.895,75 | 247.385,33 | 4.510,42 |
| **Guztira** | **251.895,75** | **247.385,33** | **4.510,42** |

## 3.7 LANGILE-GASTUAK

Udalaren gastuen egoera-orriaren kapitulu honi dagozkion betebeharren banakatzea honako hau da:

-Eurotan-

| Kontzeptua | Betebehar onartuak | Ordainketa likidoak | Ordaintzeko |
|---|---|---|---|
| **Soldatak eta alokairuak** | | | |
| Goi-karguen ordainsariak | 201.617,42 | 201.617,42 | - |
| Funtzionario eta estatutupekoen ordainsariak | 7.872.004,05 | 7.872.004,05 | - |
| Lan-kontratuko langile finkoen ordainsariak | 170.075,85 | 170.075,85 | - |
| Lan-kontratuko aldi baterako langileen ordainsariak | 294.995,21 | 294.995,21 | - |
| Lan-kontratu gabeko langileen praktiken ordainsariak | 4.332,07 | 4.332,07 | |
| **Soldatak eta alokairuak guztira** | **8.543.024,60** | **8.543.024,60** | **-** |
| **Gizarte-kargak** | | | |
| Gizarte Segurantza | 2.202.425,73 | 2.202.425,73 | - |
| Elkarkidetza | 186.193,29 | 186.193,29 | - |
| Erretiro aurreratuen ondoriozko kalte-ordainak | 54.095,04 | 22.463,37 | 31.631,67 |
| Bizi- eta istripu-aseguruak | 45.631,61 | 45.631,61 | - |
| **Gizarte-kargak guztira** | **2.488.345,67** | **2.456.714,00** | **31.631,67** |
| **Guztira** | **11.031.370,27** | **10.999.738,60** | **31.631,67** |

"Goi-karguen ordainsariak" kontzeptuaren barruan, liberatutako udalkideen nominak erregistratzen dira. 2018ko ekitaldian, egoera horretan egon dira:

- Alkatea eta hiru zinegotzi, guztiz liberatuta, eta partzialki liberatutako bi zinegotzi.

2018ko ekitaldian % 1,5eko soldata-igoera izan da urtarriletik ekainera eta % 0,25eko igoera gehigarria (% 1,75) uztailetik abendura, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeuden soldaten aldean. Bete egin da, beraz, *2018. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legean* ezarritakoa.

Halaber, % 0,3ko igoera gehigarria aplikatu da, produktibitatearen ondoriozko igoera gisa. Horrek 22.238 euroko guztizko zenbateko gordina izan du Udalarentzat.

Horrez gain, Udalak 75.327 euroko (Udaleko soldata gordina) produktibitate-plusa ordaindu die langileei. Aurreko ekitaldietan zuzkitutako funtsa aurrekontura itzultzearen bidez (2018an zenbatekoa 122.721 eurokoa izan da) finantzatu dira plus horiek (Udalbatzaren 2015eko abenduaren 29ko osoko bilkura).

Udalaren mendeko "Iturbide Egoitza" erakundean, gastuen egoera-orriko "Langile-gastuak" kapituluan onartutako betebeharren kontzeptukako xehetasuna honako hau da:

- Eurotan -

| Kontzeptua | Iturbide |
|---|---|
| Soldatak eta alokairuak | 563.490,04 |
| Gizarte-kargak | 167.551,67 |
| Guztira | 731.041,71 |

Erakunde horren barruan Udaleko langileek lan egiten dute eta erakunde horren nominaren bitartez ordaintzen dira horien gizarte-gastuak. Aurrekontuan "IV. Transferentzia arruntak" kapituluko gastu gisa erregistratzen dira.

Iturbidek, bestalde, langile-gastu gisa eta IV. kapituluko udal-ekarpenaren ondoriozko sarrera gisa kontabilizatzen ditu. 2018an egindako guztizko gastua 128.598 eurokoa izan da.

Udalean eta haren erakunde autonomoan 2018ko abenduaren 31n lanean ari diren langileak hauek dira:

| Kontzeptua | Kopurua | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Udala | | Iturbide Egoitza | | Guztira | |
| | G | E | G | E | G | E |
| Goi-karguak | 5 | 1 | - | - | 5 | 1 |
| Funtzionarioak | 100 | 115 | 2 | 12 | 102 | 127 |
| Lan-kontratuko langile finkoak | 1 | 1 | - | - | 1 | 1 |
| Lan-kontratuko aldi baterako langileak | 13 | 11 | - | | 13 | 11 |
| Guztira | 119 | 128 | 2 | 12 | 121 | 140 |

## 3.8. ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN GASTUAK

Udalaren gastuen egoera-orriaren kapitulu horretan kontabilizatutako kontzeptu adierazgarrienen xehetasuna honako hau da:

-Eurotan-

| Kontzeptua | Betebehar onartuak | Ordainketa likidoak | Ordaintzeko |
|---|---|---|---|
| Beste enpresa batzuek egindako lanak | 4.937.620,58 | 4.479.676,09 | 457.944,49 |
| Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa | 765.192,01 | 703.267,09 | 61.924,92 |
| Errentamenduak | 129.687,20 | 76.846,76 | 52.840,44 |
| Ur-hornidura | 1.069.311,76 | 813.774,10 | 255.537,66 |
| Energia elektrikoaren hornidura | 446.642,36 | 359.812,62 | 86.829,74 |
| Jarduera soziokulturalak | 597.255,60 | 517.558,70 | 79.696,90 |
| Komunikazioak | 267.718,68 | 217.341,43 | 50.377,25 |
| Gas- eta erregai-hornidura | 128.159,09 | 113.294,96 | 14.864,13 |
| Aseguru-primak | 88.685,88 | 88.685,88 | - |
| Bestelako hornidurak | 92.583,27 | 73.480,61 | 19.102,66 |
| Tributuak | 20.551,68 | 20.485,68 | 66,00 |
| Funtzionamendu-gastuak | 476.736,76 | 431.419,96 | 45.316,80 |
| Publizitatea eta propaganda | 58.985,03 | 55.857,53 | 3.127,50 |
| Gastu juridikoak | 124.038,17 | 97.121,71 | 26.916,46 |
| Emakumearen arloko jarduerak | 94.008,04 | 89.374,36 | 4.633,68 |
| Bulegoko materiala eta argitalpenak | 122.468,10 | 114.065,20 | 8.402,90 |
| Dietak, lokomozioa eta joan-etorriak | 34.095,79 | 31.959,31 | 2.136,48 |
| Beste hainbat gastu | 404.381,82 | 312.345,27 | 92.036,55 |
| **Guztira** | **9.858.121,82** | **8.596.367,26** | **1.261.754,56** |

2018ko ekitaldian beste enpresa batzuek egindako lanak (azpikontratazioak) honako taula honetan ikus daitezke:

-Eurotan-

| Kontzeptua | Betebehar onartuak | Ordainketa likidoak | Ordaintzeko |
|---|---|---|---|
| Garbiketa | 767.694,90 | 699.389,71 | 68.305,19 |
| Kale-garbiketa | 1.271.409,37 | 1.167.552,78 | 103.856,59 |
| Lorezaintzako zerbitzua | 779.344,08 | 708.957,01 | 70.387,07 |
| Kontratu soziokulturalak | 540.030,75 | 497.424,25 | 42.606,50 |
| Garraio publikoa | 514.866,90 | 471.629,18 | 43.237,72 |
| Etxeko laguntza | 231.531,09 | 175.858,96 | 55.672,13 |
| Azterketak, lan teknikoak eta aholkularitza | 597.490,84 | 539.439,92 | 58.050,92 |
| Kanpoko beste zenbait zerbitzu | 235.252,65 | 219.424,28 | 15.828,37 |
| **Guztira** | **4.937.620,58** | **4.479.676,09** | **457.944,49** |

Udalaren mendeko erakundean, dagozkion gastuen egoera-orriko "Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak" kapituluan onartutako betebeharren xehetasuna, kontzeptuka, honako hau da:

- Eurotan -

| Kontzeptua | Iturbide |
|---|---|
| Beste enpresa batzuek egindako lanak | 2.514.067,45 |
| Materiala, hornidurak eta beste | 108.791,46 |
| Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa | 24.771,87 |
| Dietak, lokomozioa eta joan-etorriak | 583,53 |
| Beste hainbat gastu | 77.869,38 |
| Guztira | 2.726.083,69 |

## 3.9 FINANTZA-AKTIBOEN ALDAKUNTZA

### GASTUAK

- Eurotan -

| FINANTZA-AKTIBOAK | | | |
|---|---|---|---|
| Kontzeptua | Betebehar onartuak | Ordainketa likidoak | Ordaintzeko |
| Langileentzako aurrerakinak | 34.342,58 | 34.342,58 | - |
| Garaiaren kapital-ekarpena | 65.936,86 | 65.936,86 | - |
| Txiki Txoko kontratuaren fidantzak | 2.400,00 | 2.400,00 | - |
| Guztira | 102.679,44 | 102.679,44 | - |

"Garaiaren kapital-ekarpena" kontzeptua kapital-zabalkuntzen ondorioz egiteko dauden akzioen ordainketei dagokie, Garaia Berrikuntza Poloan eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergan edo ondasun higiezinen gaineko zergan sortutako sarreren arabera egiten direnei (4.2. atala).

## SARRERAK

- Eurotan -

| FINANTZA-AKTIBOAK | | | |
|---|---|---|---|
| Kontzeptua | Betebehar onartuak | Ordainketa likidoak | Ordaintzeko |
| Langileen aurrerakinen itzulketa | 34.342,58 | 11.921,54 | 22.421,04 |
| FIARE fundazioaren kapital-ekarpenaren itzulketa | 1.800,00 | 1.800,00 | - |
| Aurrekontuz kanpoko gordailua eskualdatzea. Soldata-igoerak | 122.720,88 | 122.720,88 | - |
| Guztira | 158.863,46 | 136.442,42 | 22.421,04 |

"Aurrekontuz kanpoko gordailua eskualdatzea. Soldata-igoerak" epigrafeak aurreko ekitaldietan soldata-igoerak ("produktibitate-plusa") finantzatzeko erreserbatutako funtsa aurrekontura eskualdatzea jasotzen du, 2018ko ekitaldian erabilitakoa (3.7. atala).

## 3.10 FINANTZA-PASIBOEN ETA FINANTZA-GASTUEN ALDAKUNTZA

Udalaren gastuen egoera-orriaren "Finantza-pasiboak" kapituluaren osaera honako hau da:

| FINANTZA-GASTUAK | | | |
|---|---|---|---|
| Kontzeptua | Betebehar onartuak | Ordainketa likidoak | Ordaintzeko |
| Banku-maileguen interesak | 8.086,76 | 8.086,76 | - |
| Guztira | 8.086,76 | 8.086,76 | - |

- Eurotan -

| FINANTZA-PASIBOAK | | | |
|---|---|---|---|
| Kontzeptua | Betebehar onartuak | Ordainketa likidoak | Ordaintzeko |
| Sektore publikoaz kanpoko maileguen amortizazioa | 973.672,80 | 973.672,80 | - |
| Guztira | 973.672,80 | 973.672,80 | - |

2018ko ekitaldian zehar Kutxabankekin izenpetutako 655.000 euroko maileguaren amortizazio aurreratua egin da.

Aurreko maileguaren gainerako saldoa, hots, 318.151 euro, oso-osorik amortizatu da 2019. urte-hasieran.

Bestalde, Udalak 2018an bere pasiboan erregistratu du Dibertsifikaziorako eta Energia Aurrezpenerako Institutuak (IDAE) udalerrian argiteria publikoaren obrak finantzatzeko emandako maileguaren zati baten ondorioz Debagoieneko Mankomunitatearekin hartutako zorra, 445.489 euroko zenbatekoaz (4.1 atala).

Hurrengo taulan, maileguek ekitaldian izan duten bilakaera ikus daiteke:

-Eurotan-

| UDALA | Emandako zenbatekoa | Data | | 2018/12/31ko interes-tasa | 2017/12/31ko saldoa | Betebehar onartuak | | 2018/12/31ko saldoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Erakunde mailegu-emailea | | Ematea | Epemuga | | | Interesak | Amortizazioa | |
| Kutxabank SA | 3.104.928,42 | 2011/11/17 | 2022/11/27 | % 0,88 | 1.291.823,77 | 8.086,76 | 973.672,80 | 318.150,97 |
| Eusko Jaurlaritza, aurrerakin itzulgarria (2010) | 23.941,47 | 2010/09/08 | 2020/9/8 | % 0,00 | 23.941,47 | - | - | 23.941,47 |
| Eusko Jaurlaritza, aurrerakin itzulgarria (2011) | 10.298,12 | 2011/10/07 | 2021/10/07 | % 0,00 | 10.298,12 | - | - | 10.298,12 |
| Udala guztira | | | | | 1.326.063,36 | 8.086,76 | 973.672,80 | 352.390,56 |

## 3.11 EMANDAKO TRANSFERENTZIA ARRUNTAK ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIAK

Udalaren gastuen egoera-orriko kapitulu horien osaera honako hau da:

- Eurotan -

| TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | | | |
|---|---|---|---|
| Onuraduna | Betebehar onartuak | Ordainketa likidoak | Ordaintzeko |
| Mankomunitateak eta partzuergoak | 2.347.797,47 | 2.337.797,47 | 10.000,00 |
| Irabazi-asmorik gabeko erakundeak | 857.420,08 | 743.449,47 | 113.970,61 |
| Enpresak | 192.163,51 | 118.225,91 | 73.937,60 |
| Goiena | 195.702,96 | 146.777,22 | 48.925,74 |
| Familiak | 896.123,89 | 738.758,39 | 157.365,50 |
| Beste zenbait erakunde publiko | 32.934,87 | 32.934,87 | - |
| Guztira | 4.522.142,78 | 4.117.943,33 | 404.199,45 |

"Irabazi-asmorik gabeko erakundeei" 2018ko ekitaldian emandako transferentzia arrunten xehetasuna honako hau da:

- Eurotan -

| Irabazi-asmorik gabeko erakundeak | | | |
|---|---|---|---|
| Onuraduna | Betebehar onartuak | Ordainketa likidoak | Ordaintzeko |
| Kultura-jarduerak | 66.796,63 | 46.081,00 | 20.715,63 |
| Talde politikoak | 210.392,00 | 210.392,00 | - |
| Gurutze Gorria | 25.000,00 | 15.000,00 | 10.000,00 |
| Arrasate musikala | 325.000,00 | 308.421,89 | 16.578,11 |
| Irakaskuntza | 19.000,00 | 11.400,00 | 7.600,00 |
| Hirugarren adinekoak | 22.631,85 | 22.631,85 | - |
| GKE | 54.827,05 | 42.862,25 | 11.964,80 |
| AED | 44.345,00 | 26.607,00 | 17.738,00 |
| Beste zenbait | 89.427,55 | 60.053,48 | 29.374,07 |
| Guztira | 857.420,08 | 743.449,47 | 113.970,61 |

- Eurotan -

| KAPITAL-TRANSFERENTZIAK | | | |
|---|---|---|---|
| Onuraduna | Betebehar onartuak | Ordainketa likidoak | Ordaintzeko |
| Mankomunitatearen inbertsioetarako ekarpena | 433.774,33 | 397.179,63 | 36.594,70 |
| Zubillaga hiltegia | 67.972,50 | 67.972,50 | - |
| Ur-partzuergoaren inbertsioak - Azpiegitura-kanona | 517.250,14 | 517.250,14 | - |
| Beste zenbait | 1.800,00 | 1.800,00 | - |
| Guztira | 1.020.796,97 | 984.202,27 | 36.594,70 |

2004ko ekitaldian Udalak dirulaguntzak emateko ordenantza bat onartu zuen. 2004ko azaroaren 11ko GAOn argitaratu zen. Urtean behin dirulaguntzen deialdi orokorra egiten da. 2018ko ekitaldirako deialdia 2018ko otsailaren 8an egindako osoko bilkuran onartu da.

Udalbatzak, 2016ko martxoaren 22an egindako osoko bilkuran, 2016tik 2019ra arteko ekitaldietarako Dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen, dirulaguntzen lerro berrien araberako urteko eguneratzeekin. 2018. urteari zegozkionak 2018ko otsailaren 6ko osoko bilkuran onartu ziren.

## 3.12 INBERTSIO ERREALAK

Udalaren gastuen egoera-orriaren kapitulu horretan kontabilizatutako kontzeptu adierazgarrienen xehetasuna honako hau da:

- Eurotan -

| Kontzeptua | Betebehar onartuak | Ordainketa likidoak | Ordaintzeko |
|---|---|---|---|
| Erabilera orokorrera zuzendutako azpiegitura eta urbanizazioa | 2.437.716,85 | 2.272.796,65 | 164.920,20 |
| Lursail eta ondasun naturalak | 135.000,00 | 135.000,00 | - |
| Eraikinak eta bestelako eraikuntzak | 1.336.331,27 | 1.190.273,19 | 146.058,08 |
| Altzariak eta tresnak | 59.469,02 | 54.511,88 | 4.957,14 |
| Makineria, instalazioak eta tresneria | 79.976,35 | 67.564,55 | 12.411,80 |
| Informazio-prozesuetarako tresneria | 103.590,42 | 100.464,54 | 3.125,88 |
| Garraio-elementuak | 399,00 | 399,00 | - |
| Plangintza | 138.449,92 | 133.342,45 | 5.107,47 |
| Guztira | 4.290.932,83 | 3.954.352,26 | 336.580,57 |

Aurreko taulan jasotako "Eraikinak eta bestelako eraikuntzak" epigrafearen barruan, gastu esanguratsuenen artean bilduta daude "Aprendizen" eraikina eraberritzeko proiekturako egindako inbertsioen ondorioz onartutako betebeharrak, 592.506 euroko zenbatekoaz.

"Erabilera orokorrera zuzendutako azpiegitura eta urbanizazioa" epigrafeari dagokionez, obra hauetan onartutako betebeharrak nabarmentzen ditugu:

- Makatzenako pilotalekuko parkearen urbanizazioa (355.500 euro).
- Makatzenako igogailua (463.341 euro).
- Itxaropena plazako parkea (185.058 euro).
- Garibai hiribidea - urbanizazioa hobetzea (171.259 euro).

2018ko ekitaldian zehar Etxezarreta partzelaren prezioaren % 50 erosteko aukeraren ondoriozko gainerako betebeharrak erregistratu dira (135.000 euro). Lehen zatia 2017ko abenduaren 31n erregistratu zen, nahiz eta zegokion eskritura 2018ko urtarrilaren 8an egin, eta 135.000 euroko zenbatekoa ordaindu zen zati hori erosteko. Ildo horretan, 2018ko abenduaren 31n "lursailetara" eskualdatu dira aipatutako lehen zatiaren 135.000 euroak, 2017ko abenduaren 31n "Ibilgetze materialetarako aurrerakinen" saldo gisa erregistratu zirenak.

2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden aseguru-polizek edukitzailerako 88.103 mila euroko estaldura eta edukirako 6.424 mila eurokoa aintzat hartzen dute, gutxi gorabehera, Udalaren eraikin eta instalazioetako sute-arriskurako.

Kapitulu honek ez ditu tresneria eta hornidura txikiagoen erosketak barne hartzen; horiek "Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak" kapituluaren barruan erregistratzen dira.

## 3.13 DIRUZAINTZAKO FUNTS LIKIDOAK

2018ko abenduaren 31ko diruzaintzako egoera-orritik, aurrekontu-eragiketei eta aurrekontuz kanpokoei esleitutako funts-izakin hauek ondorioztatzen dira:

- Eurolan -

| Eragiketak | Zenbatekoa |
|---|---|
| Aurrekontukoak | 11.203.245,90 |
| Aurrekontuz kanpokoak | 466.536,03 |
| **Eskudiruzko izakinak guztira** | **11.669.781,93** |

Eskudiruzko izakinen zenbatekoa hainbat banku-erakundetako kontuetan zegoen gauzatuta. Kontu horiek, kontabilitate-zerrenden arabera, honako xehetasun hau zuten:

- Eurolan -

| Banku-erakundea | Zenbatekoa |
|---|---|
| Eskudiru-kutxa - Aukea | 1.474,15 |
| Kutxabank | 1.407.311,77 |
| Banco Sabadell | 57.720,50 |
| BBVA | 1.074.463,79 |
| Banco Santander | 772.688,57 |
| La Caixa | 108.872,71 |
| Banco Popular - Santander | 77.952,72 |
| Laboral Kutxa | 2.625.296,04 |
| Eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak | 5.234.000,00 |
| Caja Rural de Navarra | 310.001,68 |
| **Eskudiruzko izakinak guztira** | **11.669.781,93** |

Horrez gain, badira udala titular duten banku-kontu batzuk, diruzaintzako kontuetan sartuta ez daudenak. Kontu horien saldoa, ekitaldiaren itxieran, 26.476 eurokoa da guztira. Funtsean, auzo-alkatetzen kontuei dagozkie.

Bestalde, "Eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak" epigrafean finantza-inbertsioak daude, 5.234.000 euroko zenbatekoaz, etekin handiko kontuetan. Hona horien xehetasuna:

- Eurolan -

| Erakundea | Zenbatekoa | Epemuga |
|---|---|---|
| Kutxabank | 1.175.000,00 | 2019/12/14 |
| B. Sabadell | 2.650.000,00 | 2020/6/19 |
| B. Sabadell | 1.209.000,00 | 2020/6/10 |
| Caja Rural de Navarra | 200.000,00 | 2019/3/30 |
| | **5.234.000,00** | |

Finantza-inbertsio horiek "Aldi baterako finantza-inbertsioak" epigrafearen barruan erregistratu beharko ziratekeen, 5.034.000 euroko zenbatekoaz.

Epigrafe horretan, halaber, Laboral Kutxaren finantza-inbertsioen ondoriozko 500.000 euro erregistratuta daude, 2020ko otsailaren 29an epemuga dutenak (3.15 atala).

Caja Rural de Navarra erakundeak ez du sartu baimendutako sinadurei buruzko informazioa egin diogun eskaerari emandako erantzunean.

## 3.14 ESKUBIDE ONARTUEN ONDORIOZKO ZORDUNAK

Udalak erregistratutako 2018ko abenduaren 31n kobratzeko zeuden aurrekontu-eskubideen kapitulukako osaera eta antzinatasunaren xehetasuna, 2018ko ekitaldian zehar likidatutako eta aurreko ekitaldietan ere likidatutako eskubideak barne hartzen dituena, honako hau da:

- Eurotan -

| AURREKONTUKO ZORDUNAK | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Kapitulua | 2016 eta aur. | 2017 | 2018 | Guztira |
| 1- Zuzeneko zergak | 1.078.930,91 | 236.036,44 | 497.791,59 | 1.812.758,94 |
| 2- Zeharkako zergak | 12.319,87 | 1.479,69 | 123.641,59 | 137.441,15 |
| 3- Tasak eta bestelako sarrerak | 201.272,07 | 206.844,50 | 603.838,22 | 1.011.954,79 |
| 4- Transferentzia arruntak | 196,35 | - | 1.413.175,79 | 1.413.372,14 |
| 5- Ondare-sarrerak | 7.854,27 | - | 6.488,22 | 14.342,49 |
| 6- Inbertsio errealak | 838.558,22 | 2.310,00 | 4.510,42 | 845.376,64 |
| 7- Kapital-transferentziak | 1.115,70 | - | 339.504,37 | 340.620,07 |
| 8- Finantza-aktiboak | - | 3.606,06 | 22.421,04 | 26.027,10 |
| Guztira | 2.140.245,39 | 450.276,69 | 3.011.371,24 | 5.601.893,32 |

"Zuzeneko zergak" kapituluan kobratzeko dauden eskubideen banakatzea, bertan kontabilizatutako tributuen izaeraren arabera, honako hau da:

- Eurotan -

| Zerga | 2016 eta aur. | 2017 | 2018 | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Ondasun higiezinen gaineko zerga | 118.516,47 | 42.263,11 | 186.143,68 | 346.923,26 |
| Ekonomia-jardueren gaineko zerga | 400.975,91 | 148.887,71 | 168.601,47 | 718.465,09 |
| Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga | 122.479,54 | 36.764,02 | 52.594,35 | 211.837,91 |
| Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga | 436.958,99 | 8.121,60 | 90.452,09 | 535.532,68 |
| Guztira | 1.078.930,91 | 236.036,44 | 497.791,59 | 1.812.758,94 |

"Tasak eta bestelako sarrerak" kapituluan kobratzeko daudenen artean, "Hornidura-enpresak; bide publikoaren aprobetxamendua" eta "Ur-hornidura" kontzeptuen ondoriozko sarrerei dagokiena da kontu-sail adierazgarrienetakoa; izan ere, 2018ko ekitaldiaren itxieran 105.036 eta 116.798 euroko zenbatekoa dute, hurrenez hurren, guztira kobratzeko (zenbateko horiek 2019ko ekitaldian kobratzen ari dira).

"Transferentzia arruntak" eta "Kapital-transferentziak" kapituluen xehetasuna, erakunde zordunaren arabera, honako hau da:

- Eurotan -

| Erakundea | Dirulaguntza arruntak | | | Kapitaleko dirulaguntzak | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2017 eta aurrekoak | 2018 | Guztira | 2017 eta aurrekoak | 2018 | Guztira | |
| Eusko Jaurlaritza | - | 132.926,00 | 132.926,00 | - | 267.253,67 | 267.253,67 | 400.179,67 |
| EEE | | - | - | - | 6.211,60 | 6.211,60 | 6.211,60 |
| HAEE | - | 10.192,12 | 10.192,12 | - | - | - | 10.192,12 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | - | 948.419,58 | 948.419,58 | - | 1.400,00 | 1.400,00 | 949.819,58 |
| LANBIDE | - | 81.844,40 | 81.844,40 | | - | - | 81.844,40 |
| Iturbide | - | 131.639,97 | 131.639,97 | - | - | - | 131.639,97 |
| HABE | - | 92.473,05 | 92.473,05 | - | - | - | 92.473,05 |
| Mankomunitatea | - | 7.194,00 | 7.194,00 | - | - | - | 7.194,00 |
| Beste zenbait | 196,35 | 8.486,67 | 8.683,02 | 1.115,70 | 64.639,10 | 65.754,80 | 74.437,82 |
| | 196,35 | 1.413.175,79 | 1.413.372,14 | 1.115,70 | 339.504,37 | 340.620,07 | 1.753.992,21 |

2018ko abenduaren 31n kobratzeko dauden saldoen guztizko horretatik, Udalak, funtsean kobraezin-ehuneko bat aplikatuta kontabilizatutako hondarren antzinatasunaren arabera, guztira 2.738.102 euro gauzatzen zailtzat edo gauzaezintzat har daitezkeela kalkulatu du. Zenbateko hori kontzeptu horretan kendu da diruzaintzako gerakin gordinetik.

Foru Arauak ezartzen duenez, gauzatzen zailak edo gauzaezinak diren eskubideen kopurua banan-banan nahiz hainbesteko ehuneko bat finkatuta zehaztu behar da; zorren antzinatasuna, horien zenbatekoa, dagozkion baliabideen jatorria, borondatezko aldiko nahiz betearazte-bideko zerga-bilketaren ehunekoak eta abar kontuan hartuta. Nolanahi ere, 24 hilabetetik gorako antzinatasuna dutenak eskubide gauzatzeko zailtzat edo gauzaezintzat jotzen ditu, behar bezala bermatuta ez badaude eta likidatzen den ekitaldiaren hurrengo ekitaldian kobratzea aurreikusi ez bada salbu.

Eskubide bat gauzatzen zailtzat edo gauzaezintzat hartzeak ez dakar eskubide horren baliogabetzerik, ezta kontuetako bajarik ere.

## 3.15 AURREKONTUZ KANPOKO ZORDUNAK ETA HARTZEKODUNAK

Aurrekontu-sarrerarik eta -gasturik ez dakarten eragiketen bidez esleitu diren ordaintzeko edo kobratzeko kontuen 2018ko abenduaren 31ko xehetasuna honako hau da:

- Eurotan -

| AURREKONTUZ KANPOKO ZORDUNAK | |
|---|---|
| Kontzeptua | Zenbatekoa |
| Epe laburrerako ezarpenak (3.13 atala) | 500.000,00 |
| Jasanarazitako BEZaren ondoriozko zordunak | 270.365,75 |
| Aurrekontuz kanpoko beste zenbait zordun | 49.590,61 |
| Guztira | 819.956,36 |

- Eurotan -

| AURREKONTUZ KANPOKO HARTZEKODUNAK | |
|---|---|
| Kontzeptua | Zenbatekoa |
| Epe laburrera jasotako fidantzak | 410.809,12 |
| Epe laburrera jasotako gordailuak | 65.622,86 |
| Ogasun Publikoa, BEZaren ondoriozko hartzekodun | 35.759,65 |
| Ogasun Publikoa, PFEZren ondoriozko hartzekodun | 440.955,52 |
| Jasandako BEZaren ondoriozko hartzekodunak | 39.271,71 |
| Gizarte-aurreikuspeneko erakundeak, hartzekodun | 282.104,34 |
| Baliabideen bilketaren ondoriozko erakunde publiko hartzekodunak | 11.969,19 |
| Guztira | 1.286.492,39 |

✓ **Aurrekontuz kanpoko beste zenbait zordun**

Kontu zordun honek, funtsean, "Iturbide, itzuli beharreko aurrerakinen ondoriozko zordun" kontzeptua jasotzen du, egoitzan 2018an Udalaren alde sortutako 48.839 euroko superabitaren ondorioz (3.5 atala).

✓ **BEZaren ondoriozko zordunak eta hartzekodunak**

"Jasanarazitako BEZaren ondoriozko zordunak" eta "Jasandako BEZaren ondoriozko hartzekodunak" kontuetan zergapetuta eta salbuetsi gabe dauden jardueren ondorioz hirugarrenekin sortutako zordunketak eta zorrak biltzen dira, zerga horren kuotak jasaten dituztenak edo jasanarazten zaizkienak hain zuzen ere.

"Jasanarazitako BEZaren ondoriozko zordunen" kasuan saldoa aurreko ekitaldietatik dator, eta AE86 Zalduspe esparrua birpartzelatzearen ondoriozko urbanizazio-kargei dagokien BEZari (173.321 euro) dagokio funtsean. Karga horiek 825.336 euroko zenbatekoan likidatu ziren eta kobratzeko daude. Merkataritza-sozietatea konkurtso-prozesuan dago eta kobratzeko zailtasunak daudela uste da.

✓ **Jasotako fidantzak**

"Epe laburrera jasotako fidantzak" eta "Epe luzera jasotako fidantzak" kontuetan kontabilizatutako eskudiruzko balioetan sartzen dira udalaren esku dauden eta ekitaldian edo aurreko ekitaldietan kutxan edo finantza-erakundeetan eskudirutan eratu diren ondasunak. Oro har, bat datoz aipatutako eskudiruaren hirugarren hartzekodunek galda ditzaketen eskubideekin.

Horrez gain, egindako berrikuspenaren ondorioz, erregistratutako zenbatekoek kasu batzuetan 1990eko antzinatasuna duten saldoak jasotzen dituztela antzematen da. Udalak saldo horiek aurrekontu arruntera eskualdatu beharko lituzke.

✓ **Epe laburrera jasotako gordailuak**

Kontu horrek, funtsean, 2018ko abenduaren 31n sarreren aurrekontutik erretiratutako funtsak jasotzen ditu, itzultzeko edo konpentsatzeko daudenak, edo aplikatzeko nahiz entregatzeko dauden jasotako kobrantzak.

✓ **Ogasun Publikoa, beste zerga-kontzeptu batzuen ondorioz hartzekodun**

Kontu horretan erregistratzen da, funtsean, Ogasun Publikoarekin dagoen zorra, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura Udaleko langileen nominan 2018ko

laugarren hiruhilekoan egindako atxikipenengatik eta aipatutako zergaren ondorioz Udalaren zerbitzura aritu diren hainbat profesionali ordaindutako zerbitzu-sarietan egindako atxikipenengatik.

✓ **Gizarte-aurreikuspeneko erakunde hartzekodunak**

Errubrika horren saldoak abenduko nominan udal-langileei egindako atxikipenen eta udalak hainbat organismo eta erakunderi (Gizarte Segurantzari eta Elkarkidetzari, batik bat) egindako ekarpenen ondorioz 2018ko abenduaren 31n erakunde horiei ordaintzeko zegoen zenbatekoa jasotzen du.

Iturbideren kasuan, aurrekontuz kanpoko hartzekodunen 2018ko abenduaren 31ko xehetasuna honako hau da:

- Eurotan -

| AURREKONTUZ KANPOKO HARTZEKODUNAK | |
|---|---|
| Kontzeptua | Zenbatekoa |
| Aurrekontuz kanpoko beste zenbait hartzekodun | 180.479,24 |
| Ogasun Publikoa, PFEZren ondoriozko hartzekodun | 17.867,70 |
| Gizarte-aurreikuspeneko erakundeak, hartzekodun | 14.300,56 |
| Guztira | 212.647,50 |

✓ **Aurrekontuz kanpoko beste zenbait hartzekodun**

Ordaintzeko kontu gisa jasotzen du 2018an sortutako superabitaren zenbatekoa, sarreren aurrekontutik kendu dena (3.5. atala), Udalari itzuli beharrekoa.

Aurreko paragrafoen arabera, honako hau ***gomendatzen dugu:***

⇒ ***Jasotako fidantza eta gordailuen galdagarritasun-maila aztertzea, kuantifikatutako aldeak aurrekontuaren bitartez doituta.***

## 3.16 TXERTATU BEHARREKO KREDITU-GERAKINAK ETA KONPROMISO-KREDITUAK

### Txertatu beharreko kreditu-gerakinak

Udalean baliogabetu ez diren eta 2019ko ekitaldiko aurrekontuan txertatu diren kreditu-gerakinen kapitulukako osaera eta antzinatasunaren xehetasuna honako hau da:

- Eurotan -

| KREDITU-GERAKINAK | | | |
|---|---|---|---|
| Kapitulua | 2017 | 2018 | Guztira |
| 2- Ondasun eta zerbitzuen erosketak | - | 34.793,55 | 34.793,55 |
| 6- Inbertsio errealak | 3.727.130,69 | 5.617.492,86 | 9.344.623,55 |
| 7- Kapital-transferentziak | - | 147.500,00 | 147.500,00 |
| 8- Finantza-aktiboak | - | 52.382,24 | 52.382,24 |
| Guztira | 3.727.130,69 | 5.852.168,65 | 9.579.299,34 |

Kreditu-gerakin horiek 2019ko ekitaldiko aurrekontuan txertatzeko eragiketa gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren kargura finantzatu da, 9.179.078 euroko zenbatekoaz, lotutako diruzaintzako gerakinaren kargura, 164.598 euroko zenbatekoaz, eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzen kargura, 235.623 euroko zenbatekoaz.

Indarrean dagoen araudiak ez du aukera ematen kreditu-gerakinak hurrenez hurren txertatzeko, baliabide finalistekin finantzatzen diren kapital-eragiketen kasuan izan ezik. Horixe da, hain zuzen, Udalaren 2017ko inbertsioen txertaketen kasua.

### Konpromiso-kredituak

- Eurotan -

| Kontzeptua | Ekitaldiak | | |
|---|---|---|---|
| | 2019 | 2020 | Guztira |
| Aprendizen eraikina erreformatzeko proiektua | 1.056.228,80 | - | 1.056.228,80 |
| Zaldupe urbanizatzea | 90.000,00 | - | 90.000,00 |
| Kulturola proiektua | 500.000,00 | 1.767.836,23 | 2.267.836,23 |
| Erabilera-zortasuna duten urbanizazio pribatuentzako dirulaguntza | 86.137,00 | - | 86.137,00 |
| Garaia, S.Coop. sozietaterako ekarpena | 88.085,56 | - | 88.085,56 |
| Guztira | 1.820.451,36 | 1.767.836,23 | 3.588.287,59 |

# 4 ONDARE-KONTABILITATEAN NABARMENDU BEHARREKO BESTE IRUZKIN BATZUK

## 4.1 FINANTZAZ BESTELAKO IBILGETUA

Balantzearen epigrafeka sailkatuta, hona hemen finantzaz bestelako ibilgetua osatzen duten saldoen laburpena:

-Eurotan-

| Finantzaz bestelako ibilgetua | 2018/12/31 | 2017/12/31 |
|---|---|---|
| Ibilgetu ukiezina, garbia | 703.766,96 | 719.341,20 |
| Ibilgetu materiala, garbia | 73.070.730,02 | 71.529.415,42 |
| Higiezinetako inbertsioak (garbia) | 6.348.196,84 | 6.463.558,86 |
| Finantzaz bestelako ibilgetua guztira | 80.122.693,82 | 78.712.315,48 |

Ibilgetu materiala kostaprezioaren arabera baloratuta dago, 1995eko abenduaren 31 baino lehen eskuratutako ibilgetu materiala izan ezik, udal-zerbitzu teknikoek egindako tasazioaren emaitzazko balioaren arabera txertatu baitzen 1995eko ekitaldiko egoera-balantzean, nahiz eta balorazio-arauek galdatzen duten eskuratze-prezioa edo produkzio-kostua erabili behar dela ibilgetu hori baloratzeko irizpide gisa.

Udal-inbentarioa eguneratzeko Udalbatzaren azken erabakia 2019ko maiatzaren 7koa da, 2018ko abenduaren 31ko eguneratzea onartzen duena. Horretan erregistratzen dira 2015 eta 2018 arteko ekitaldiei dagozkien altak eta bajak.

2018ko abenduaren 31n, inbentarioaren saldoak bat datoz itxiera-data horretako kontabilitate-saldoekin.

Udalak inbertsioak amortizatzen ditu haiek gauzatzen diren ekitaldiaren hurrengotik aurrera.

2016ko uztailaren 8an hitzarmena izenpetu zuten Udalak eta SPRI erakundeak. Hitzarmen horren arabera, Udalak "Aprendizen" eraikina jaso zuen eta, horren truke, "A.E.86-Zalduspe esparruaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Testu Bateginaren" barruko antolamendu-esparruan kokatutako lur-partzela baten % 35,58 entregatu zuen. Udalarena zen partzela horren titulartasunaren % 88,14. Udalak balantzearen pasiboko "Epe luzerako hornidurak" epigrafean erregistratu zuen entregatutako finkaren etorkizuneko urbanizazio-kargen zenbateko zenbatetsia (570.333 euro), Udalak bere gain

hartu behar baititu adierazitako hitzarmenaren arabera, baina ez da inongo zenbatekorik egotzi 2017ko ekitaldiko ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontuan, ezta 2018ko ekitaldikoan ere.

Bestalde, "Uneko azpiegiturak" epigrafean erregistratu dira Makatzenako igogailua eraikitzeko lanak, 463.341 euroko zenbatekoaz.

2018an alta eman zaie udalerrian Debagoieneko Mankomunitatearen bitartez argiteria publikoan egindako inbertsioei, 466.176 euroko zenbatekoaz. Inbertsioak zati batean kapitaleko dirulaguntzekin (20.687 euro) eta 445.489 euroko mailegu batekin finantzatu dira, eta Udalak bere gain hartu du mailegu horren amortizazioa (3.10 atala).

"Udalaren lurzoru-ondarea" epigrafeari dagokionez, ez dakigu zein izango litzatekeen ekitaldi honetan eta aurreko ekitaldietan epigrafe horretan birsailkatzeko dauden gauzatutako ondasunei dagokien zenbatekoa.

Kontu-hartzailetzak jaulkitako 2018ko ekitaldiko likidazioaren txostenak Udalaren lurzoru-ondareari buruzko araudia betetzearen gaineko atal bat jasotzen du. Bertan adierazten denez, 2018ko abenduaren 31n (2015-2018 aldirako), izaera horretako ondarera zuzendutako funts gehiegi erabili dira aurreikuspenetan oinarrituta, baina 2019ko ekitaldian zehar berretsi beharko da aurreikusitako proiektuen egikaritze errealaren bitartez.

2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden aseguru-polizek 94.527 mila euroko estaldura jasotzen dute, gutxi gorabehera, eraikin eta instalazioen sute-arriskurako.

## 4.2 FINANTZA-IBILGETUA

Udalak hainbat merkataritza-sozietatetan dituen partaidetzei esleitutako eta balantzearen epigrafe honetan kontabilizatutako balioen laburpena honako hau da:

- Eurotan -

| Sozietate taldeaniztun eta elkartuetako partaidetzak | Partaidetza | 2018/12/31 | 2017/12/31 | Udalaren kontabilitate-balio garbia (KBG) (*) | Narriadura |
|---|---|---|---|---|---|
| SURADESA (Debagoiena Birgaitzeko Hirigintza Sozietatea) | % 15,40 | 9.255,59 | 9.255,59 | 13.021,95 | - |
| Arrasateko Eraberrikuntza Industrialdea SA | % 15,53 | 45.900,00 | 45.900,00 | 71.989,75 | - |
| Deba Ballarako Industrialdea SA | % 2,29 | 590.193,89 | 590.193,89 | 462.947,06 | 127.246,83 |
| Zubillaga Hiltegia SA | % 23,85 | 31.000,00 | 31.000,00 | 132.030,23 | - |
| Jakion SL | % 21,47 | 19.352,49 | 19.352,49 | 1.793,83 | 17.558,34 |
| Sociedad Polo Innovación Garaia, S.Coop. | % 16,13 | 2.108.574,92 | 2.108.574,92 | 1.904.749,53 | 203.825,39 |
| Sociedad Polo Innovación Garaia, S.Coop. sozietateari egiteko dagoen ordainketa | - | (140.467,80) | (206.404,66) | - | - |
| Golena, S.Coop. | % 9,07 | 1.202,02 | 1.202,02 | 2.125,44 | - |
| FIARE | - | - | 1.800,00 | | - |
| Guztira | | 2.665.011,11 | 2.600.874,25 | 2.588.657,79 | 348.630,56 |

*(*) Sozietate horiek jaulkitako 2018ko urteko kontuetatik lortutako datuak*

- Eurotan -

| Zuzenbide publikoko erakundeetako partaidetzak | Partaidetza | 2018/12/31 | 2017/12/31 | Kontabilitate-balio garbia (KBG) | Narriadura |
|---|---|---|---|---|---|
| Iturbide Egoitza | % 100,00 | 6.549.889,68 | 6.536.908,86 | 4.327.483,95 | 2.222.405,73 |
| Guztira | | 6.549.889,68 | 6.536.908,86 | 4.327.483,95 | 2.222.405,73 |

2016ko ekitaldiaren irekieran, Udalak bere mendeko erakunde autonomoari zegozkion *zuzenbide publikoko erakundeetako epe luzerako partaidetzei* alta eman zien, aurreko kontabilitate-planeko *atxikitako ondarean* Udalak egindako gauzazko ekarpenen zenbatekoaz (6.496.612 euro). Horien amortizazio metatua, bestalde, finantza-aktibo horren narriadura gisa erregistratu zen (1.784.478 euro).

Bestalde, Iturbide Egoitzaren 2016ko urtarrilaren 1eko balio berreskuragarria (Ondare garbia) 4.712.133 eurokoa zen, data horretako kontabilitateko egoera-orrietatik ondorioztatzen denez, hots, aurreko paragrafoan aipatutako zenbatekoen balio garbiaren baliokidea.

2017ko ekitaldian, adierazitako narriaduraren zenbatekoa erakunde autonomoaren ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontuak islatzen duen emaitza negatiboaren zenbatekoan handitu zen (147.068 euro), eta partaidetzaren kostu-balioa, berriz, 2017an

Iturbide erakunde autonomoari atxikitako inbertsioen zenbatekoan handitu zen (21.491 euro).

2018ko ekitaldian Udalean izaera berbereko mugimenduak 144.991 eurokoak eta 12.981 eurokoak izan dira, narriadura eta partaidetza handitzekoak, hurrenez hurren.

Udalbatzak 2012ko maiatzaren 2an egindako osoko bilkuran erabaki zuen Udalak Jakion SL sozietatearen kapital sozialaren zabalkuntzan harpidetuko zuen zenbatekoa 4.808 eurokoa izango zela, 2011ko maiatzaren 16ko osoko bilkuran erabakitako 4.839 eurokoa izan beharrean. Kapital sozialaren zabalkuntza hori ez da gauzatu 2018ko ekitaldiaren itxieran. Halaber, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, sozietate horren akzioak 1.793,86 euroko zenbatekoan saltzeko erabakia hartu zuen.

Udalbatzak 2014ko ekainaren 3an egindako osoko bilkuran erabaki zuen FIARE irabazi-asmorik gabeko erakundeari 1.800 euroko ekarpena egitea, banku etikoaren irizpideei jarraituko zien kreditu-kooperatiba bat eratzeko kapital-ekarpen gisa erabiltzeko asmoz. Azkenik, Udalbatzak erabaki du haren kapitalean ez sartzea eta, horrenbestez, 2018ko abenduaren 31n baja eman dio partaidetza horri.

Udalbatzak 2010eko urriaren 7an egindako osoko bilkuran erabaki zuen 2008an konpromisopean hartutako 756.400 euroko ekarpena egitea Polo de Innovación Garaia, S.Coop. sozietatearen kapitalari. Ordainketa honela egingo litzateke:

- ✓ 2010ean 159.951 euroko zenbatekoa, kooperatiba horrek Udalarekin zituen zorren konpentsazioaren bidez.
- ✓ Gainerakoa, hots, 596.449 euro, Garaia Berrikuntza Poloan egingo ziren obren lizentzien ondorioz kobratu beharreko etorkizuneko tasen konpentsazioaren bidez.

Udalbatzak, bilkura berean, erabaki zuen etenik uztea Polo de Innovación Garaia, S.Coop. sozietatearen kapital sozialerako ekarpenari zegokion 331.527 euroko zenbatekoaren ordainketa. Kooperatibaren 2010eko apirilaren 15eko Ohiko Batzar Nagusiak onartu zuen ekarpen hori.

Udalbatzak 2014ko abenduaren 18an egindako osoko bilkuran erabaki zuen 331.527 euroko kapital-ekarpen hori baliozkotzat jotzea. Erabaki zuen, era berean, ekarpenaren ordainketa, 2010eko ekitaldiko kapital sozialaren zabalkuntza bezalaxe, etorkizuneko tasa edo tributuen konpentsazioaren bidez egingo zela.

Konpentsazio horiek hurrengo ekitaldietan egin dira, egungo itxiera-datara arte, honako taula honetan xehatzen den moduan:

| Kontzeptua | Erregistratutako mugimenduak |
|---|---|
| 2010ean etorkizuneko konpentsaziorako ordaintzeko erregistratutako zenbatekoa | 596.449,00 |
| 2011n konpentsatua | (82.205,41) |
| 2012an konpentsatua | (16.709,40) |
| 2013an konpentsatua | (165.174,97) |
| 2014/12/18ko osoko bilkuran harpidetua | 331.527,00 |
| 2014an konpentsatua | (169.824,71) |
| 2016an konpentsatua | (201.482,98) |
| 2017an konpentsatua | (86.173,87) |
| 2018an konpentsatua (3.9 atala) | (65.936,86) |
| **2018/12/31n etorkizuneko konpentsaziorako ordaintzeko erregistratutako zenbatekoa** | **140.467,80** |

Balio negoziagarrietarako kontabilitate-jarraibidean barne hartutako balorazio-arauei jarraituz, horiek eroste-prezioaren arabera baloratu behar dira eta bidezko balio-narriadura zuzkitu behar da eroste-prezioaren eta kontabilizatutako finantza-ibilgetuari arrazoizko balorazio-irizpideak aplikatzearen emaitzazko zenbatekoaren arteko diferentziaren arabera. Ildo horretan, Udalak aipatutako sozietateen kapital sozialean duen partaidetzaren itxiera-datan erregistratutako balorazioa arrazoizkoa dela egiaztatu ondoren, Udalak erregistratutako narriadura, 349.181 eurokoa, egokia dela ondorioztatu dugu.